goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2016-01-08
EGUBAKOITZA
667. ZENBAKIA
17. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS

TOKIKOM

# Espezieen aniztasuna bermatzen

Pagoak eraztundu dituzte Iturrigorrin | 8



Zuhaitzak eraztunduta. | GOIENA

PAMGk 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen du | 4



Eguenean has daiteke herri galdeketarako botoa ematen | 15



Gabonetan ere kirolez blai ibiltzeko aukera izan da Debagoienean | 20

# Ezohikoa

Alerta egoeran dago Urkulu, baina egoera ez da kezkatzekoa | 3



Urtegiaren bazterrak ur barik azaltzen dira, baina urtegiak sei milioi litro ur pasa ditu.

IMANOL BELOKI

# "Bakearen eta elkarbizitzaren alde" eskatu dute presoengatik mobilizatzeko

"Funtsezkoa da gai honi bukaera ona ematea jarri nahi badugu Euskal Herria bakearen eta elkarbizitzaren bidean", azpimarratu dute, biharko manifestazioetarako deia egiteko. Eskualdetik autobusak antolatu dituzte. | 2 eta 'Herriak' saila




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Victoriano Gallastegi, Bergaratik Madrilera
- 'Slow home' filosofia dekorazio lasaiaren oinarri

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## Hotz: errefuxiatuei laguntzeko taldea sortu da

Bergaran eratu dute eta arropa bilketa abiarazi dute | 12

## Datorren astelehena da Eskoriatzako axtrokiak aldatzeko azken eguna | 16

## 'La Traviata' operako dekoratuak, Bergaran egina

Ia gertu dituzte Moñuxek eta Odriozolak | 22

## SINADURAK


GOTZON IPARRAGIRRE | 6

6 | OIHANA ELORTZA



AITZIBER PLAZAOLA | 12

15 | MAITE FRAILE



ALAITZ JAUREGI | 17

32 | AINTZANE OIARBIDE


DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 8 | KIROLA 21 | KULTURA 22 | ZURE IRAGARKIAK 26 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | ZORION AGURRAK 27 | EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

**Teresa Toda** | Sare elkarteko bozeramailea

# "Zabalik dagoen sufrimenduaren iturri bakarra espetxe politika da"

- Sare eta Bagoaz elkarteek bi manifestaziotarako dei egin dute biharko
- Kolore askotako atxikimenduak batu ditu mobilizazioak

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

"Presoen sakabanaketaren zein aplikatzen zaizkien beste salbuespeneko neurrien indargabetzea eskatzeko" bi manifestazio antolatu dituzte Bagoaz eta Sare elkarteek biharko, zapatua, 17:00etan, Bilbon eta Baionan. Presoen etxeratzearen aldeko mobilizazio horren deitzaileetako bat da Teresa Toda, Sareko bozeramailea.

**"Ideologia guztien gainetik" parte hartzeko dei egin duzue...**

Presoen, haien senideen eta iheslarien egoeran ukitzen dira giza eskubideak, eta giza eskubideen defentsa jarri behar dugu politikaren gainetik, politikakerien gainetik eta ideologien gainetik. Espainiako eta Frantziako espetxe politikek presoen eskubideak urratzen dituzte, eta funtsezkoa da gai honi bukaera ona ematea benetan jarri nahi badugu Euskal Herria eta euskal jendartea bakearen eta elkarbizitzaren bidean. Badakigu gero eta zabalduago dagoela kezka hori euskal jendartean, nahiz eta askotan oso nabarmena ez izan.

**Ildo beretik, espektro zabaleko atxikimenduak dituzue, baina egunotan bat nabarmendu da bereziki...**

Bai, Rosa Rodero, Joseba Goikoetxearen alarguna. Oso emakume ausarta izan da horrelako pausoa emateko, eta jende askori balio izan beharko liezaioke eurek ere horrelako pausoak emateko, alde batetik zein bestetik. Min eta sufrimendu asko pilatu da urteotan, baina une honetan zabalik dagoen sufrimenduaren iturri bakarra da espetxe politika. Sufrimendua betiko da; pairatu duenak betiko dauka barruan, baina orain sufrimendu berriak sortzen ari dira espetxe politika dela eta. Horregatik esaten dugu horrelako sufrimenduei ateak itxi egin behar zaizkiela behingoz eta esperantzari ateak ireki. Eta uste dut Rosa Roderoren jarrerak hori egin duela. Beraz aparte, baina, badago espektro zabala deia babesten: juristak, kulturako ahotsak (Kepa Junkera...), kirolariak...

**Eta beste izen ezagun batzuk ere nabarmendu dituzue egunotan...**

Manifestazioko azken adierazpena Xabier Eguzkitzek eta Zuriñe Hidalgok irakurriko dute, pankartan Rosa Rodero bera egongo da, eta, batzuk aipatzearren, Fermin Mugurutza, Gemma Zabaleta, Juan Mari Bidarte, Juan Mari Olano... Bihar islatuko da orain arte egindako lanaren emaitza eta hemendik aurrera zela joan behar dugun ideologien gainetik gai hau mahai gainean jartzen.



Teresa Toda, Sareko bozeramailea, Arrasaten. | JAGOBA DOMINGO

**ETAk jardun armatua laga zuenetik lau urte pasa arren, presoen egoerak okerrera egin duela salatu duzue...**

Benetan bitxia, deigarria da; Euskal Herrian gertatu dena ez da munduan inon gertatu: erakunde armatu batek bere jarduera bertan behera uztea eta beste aldetik inongo erantzunik ez jasotzea. Are okerrago, espetxeetako baldintzek okerrera egin dute, Espainiako gobernua bere lubakian sartuta dago eta jarraitu dute epaiketa politikoak egiten, atxiloketak, herritar batzuek jazarpena jasaten dute, hainbat urte espetxean eman eta azkenean absolbituta geratu diren gazteak... hori guztia kezkagarria da, eta horregatik da horren inportantea euskal jendartea aktibatzea eta larunbatekoa moduko mobilizazioak egiteaz gainera, eguneroko bizitzan ere jardutea, ze horrek sortuko du presioa euskal instituzioengan, euskal eragileengan eta pixkanaka Madrilera iritsiko da, eta Europara ere bai. Eta Europa ere inportantea da, ze hortik etorri baitira ebazpen batzuk zentzu positiboan, eta gehiago espero dezakegu. (...) Bestalde, urteotan dispertsioa jantzteko erabili da salbuespeneko legea, eta hori da, hain zuzen, bertan behera geratzeko eskatu behar dena, ze geratzen den momentutik egoera erabat alda daiteke: presoei aplikatuko zaie lege arrunta eta espetxean dauden dozenaka preso libre aterako lirateke edo baldintzapeko askatasunean, gaixo daudenak ere bai... Gauza asko konponduko lirateke. Eta hori Espainiako legeak ahalbidetzen du.

**Beraz, garrantzitsua da erretratu jendetsua erakustea bihar...**

Eskatuko nuke ahaleginik handienak egiteko Bilbora joateko –edo Baionara, tokirik gertukoenera–. Guztiei egiten diet dei, jakinda ere agian zure ondoan ibiliko denarekin ez zarela bat etorriko gauza askotan, baina larunbat honetan denok bat gatoz helburu jakin batekin: *Euskal presoak Euskal Herrira*. Hori da bihotzeko eta arrazoizko deia. Gero hori nola gauzatuko dugun ikusi behar da, baina inportanteena da larunbatean denok batera egitea, honako leloarekin bat eginez: *konponbidea, bakea eta giza eskubideak defendatzeko presoak Euskal Herrira*; lelo horren pean nahiko genuke ahalik eta jende gehien batu.

"Rosa Rodero oso emakume ausarta izan da horrelako pausoa emateko"

"Bihar islatuko da zela joan behar garen aurrera ideologien gainetik"

## %12,50etik %11ra jaitsi da langabezia Debagoienean

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Langabeziak behera egin du abenduan Debagoienean: %11ko langabezia tasarekin amaitu da 2015 urtea eskualdean, 3.298 langaberekin; hilabete lehenago, tasa %11,13 zen (3.338 langabe). Debagoieneko herri guztietan jaitsi da langabe kopurua, Oñatin izan ezik –kasu horretan igo egin da– eta kopuruak bere horretan mantendu dira Aretxabaletan eta Leintz Gatzagan.

**EAEn ere behera**

Euskal Autonomia Erkidegoan ere langabezia tasak behera egin du, aurreko hilabetearekin alderatuta –apaltzea zerbitzuen sektorean izan da, batez ere–; aldiz, Nafarroan igo egin da.

### HERRIZ HERRI

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| Antzuola | 82 | %7,55 |
| Aretxabaleta | 288 | %8,39 |
| Arrasate | 1.514 | %14,52 |
| Bergara | 759 | %10,88 |
| Elgeta | 50 | %8,43 |
| Eskoriatza | 204 | %10,07 |
| Leintz Gatzaga | 7 | %5,11 |
| Oñati | 394 | %7,41 |
| **GUZTIRA** | **3.298** | **%11** |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA



# Urkuluk ezohiko irudia erakutsi arren, urtebeterako ura dago

## Atzoko –eguena– datuaren arabera, %64,27 dago beteta Aretxabaletako urtegia eta goraka doa

**G.ARANA/U.MADERA** | DEBAGOIENA

Negua izateko ez da batere ohikoa Urkuluko urtegiak egunotan erakusten duen irudia. Are gehiago, 2004tik gaur arte, egun berean jasotako datuek erakusten dute behin bakarrik egon dela betetze-maila hortik behera: 2007an izan zen, %55eko betetze-maila erregistratu zen orduan. Eta urtegiaren betetze-maila horren arabera, kolore laranja jarri diote bertako egoerari; bestela esanda, alerta egoeran dago, larrialdi egoerara iritsi baino lehenagoko egoeran, hain justu ere.

**Sei milioi litro pasa**

Baina, uraren mailak alerta egoera horretan jartzen gaituen arren, errealitatea ez da kezkatzeko bestekoa. Izan ere, Gipuzkoako Ur Kontsortziotik esplikatutako moduan, urtegia %64,27 beteta egoteak esan gura du 6.427.000 litro ur daudela bertan, eta kontuan hartu behar dela urtegi horretatik urtean 6.100.000 litro ur ateratzen direla herritarren beharrak asetzeko.

**BETETZE-MAILA**

| URTEA | % |
|---|---|
| **2016** | 64 |
| **2015** | 79 |
| **2014** | 89 |
| **2013** | 76 |
| **2012** | 78 |
| **2011** | 73 |
| **2010** | 77 |
| **2009** | 93 |
| **2008** | 74 |
| **2007** | 55 |

ITURRIA: GIPUZKOAKO URAK

Oro har, Gipuzkoako urtegi guztien egoera da antzerakoa, aurrealerta edo alerta egoeran daude probintzian dauden zazpi urtegitatik bost. Bi salbuespen ageri dira, hori bai: Aixolakoaren (Ermua) betetze-mailaren arabera, haren egoera *normala* da; eta aldiz, Lareokoa (Ataun) dagoeneko *larrialdi* egoeran dago.

**Negu aldakorra izango dugu**

Irudiak irudi, apurka-apurka hori ere aldatzen joango da, eta dagoeneko badoa aldatzen, euri txikia bada, hasi du-eta prezipitazio apur bat egiten. Oraingo astean bertan, martitzenetik eguenera puntu bat inguru handitu da Urkuluko urtegiaren maila astean zehar egindako euriari esker.

Eta Pello Zabala eguraldi adituak neguari begira egindako aurreikuspenaren arabera, euria izan izango dugu. Hori bai, Arantzazuko fraideak eguraldi aldakorra aurreikusten du 2016ko negurako, bereziki, haize zakarrak baldintzatuta, egunotakoaren antzerakoa. Eta adierazi du elurra ere izango dugula neguan, baina kasu horretan ere, hego haizea arduratuko dela hura laster antzean garbitzeaz.

# Gabonetako kanpainaren ostean, beherapenen txanda

## Pasa berri diren egunotako salmentak iazkoen antzerakoak izan direla diote dendariek

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

"Lehen urratsa aurrekontu bat eta erosketa zerrenda bat zehaztea da, aurretik behar edo nahi ditugun produktuak eta gure ekonomiak erosketa horretarako uzten diguna ere ondo pentsatuta". Horixe da Euskal Kontsumitzaileen Elkarteak atzo –eguena– hasi ziren neguko beherapenei begira egin duen lehen gomendioa. Hain justu, zazpi halako egin ditu, batzuk jakinekoak direnak, eta beste batzuk ez horrenbeste. Esaterako, beherapenetan "saltokiek txartelarekin ordaintzea uka dezaketela, horixe nabarmenki ohartarazita" edo "karteletan iragartzen diren deskontu deigarriak" ez direla "beti saltokiko produktu guztietan ezartzen". –Gomendio guztiak: *www.eka.org/eu*–.

**%20rekin-edo**

Izan ere, Gabonetako kanpaina bukatuta, eskualdeko saltokiek jarri dituzte deskontuak iragartzen dituzten kartelak. %20rekin hasi dira asko, baina hortik gorakoekin hasi direnak ere badira, ia hotz bako eta euri apenas izan duen udazken eta negu hasiera honek ez dituelako kontsumitzaileak animatu berokiak-eta erostera.

Bukatu berri diren Gabonetako salmentei dagokienez, berriz, "iazkoaren antzerakoak" izan direla esan du Ainhoa Garitanok, Bergarako komertzio txikien elkarteko kideak.

### 105 familiaren eta 192 haurren beharrak aseta, Debagoieneko jostailu-bilketa kanpainari esker

Debagoieneko Gurutze Gorriak eta Oinaztu aisialdi taldeak eskerrak eman gura dizkiete Gabonetarako egindako jostailu bilketan parte hartu dutenei. "Eurak gabe ezingo genuen gizarte bazterketa arriskuan dauden 105 familiaren eta 192 haurren beharrak ase", esan dute. Ildo beretik, bereziki eskertu gura dute Eroski Hipermerkatua, kanpaina bertan egiten lagatzeagatik.



Langileak elkarretaratzean, martitzenean. | JOSU BILBAO

# Aita Menniko langileek "mehatxuak" jaso izana salatu du ELAk

**JOSU BILBAO** | ARRASATE

Elkarretaratzea egin zuten joan den martitzenean Aita Menni ospitaleko hainbat langilek. Berrogei bat batu ziren ospitaleko sarreran *Mehatxuen gainetik, Aita Menni borrokan* lelopean.

Izan ere, "langileen eskubideen urraketa etengabea" dela-eta Aita Mennin langileak biziten ari diren egoera salatu du ELA sindikatuak, eta horretarako egin zuten elkarretaratzea. Langileek "lan-baldintza duinak eta justuak" izateko eskubidea aldarrikatu zuten, eta mobilizazioekin hasi direnetik ospitaleko zuzendaritzatik "mehatxuak" jaso dituztela salatu zuen sindikatuak.

**Hiru hilabeteko negoziazioak**

Aita Menniko komiteak hiru hilabete inguru daramatza hitzarmen berria lortzeko negoziaketetan, baina ELAtik azaldu dutenez, orain "negoziaketak erabat etenda" daude.

Bestalde, Aita Menni ospitaleko zuzendaritzak Goienari adierazi dio negoziazioen gainean ez dutela oraingoz adierazpenik egingo.

# Mikrokredituak ematen jarraitzeko laguntza eskea, Mundukidetik debagoiendarrei

## Motoponpak eskuragai jarriz, uzta oparoak izaten laguntzen dute Mozambiken

**KOMUNITATEA GOIENA** | MUNDUKIDE FUNDAZIOA | DEBAGOIENA

Mundukide Fundazioak *Zabaldu iturria* lelopean mikrokreditu kanpaina jarri du abian Laboral Kutxarekin lankidetzan.

Ekintza honen helburua ur motoponpak eskuratu ahal izateko kredituak lortzea da, Mozambike iparraldean kokatuta dagoen Marrupa eskualdeko nekazari familiei laguntzeko asmoz.


Mundukidek laguntzen dituen bizilagunetako batzuk. | MUNDUKIDE

**Autogestioa indartu guran**

Autogestioaren ideia indartu asmoz, Mundukide Fundazioak uzta oparoak lortzeko bidea zabaldu nahi die nekazariei motoponpak eskuragai jarriz.

Uzta hauei esker, familiak eurak elikatzeaz gainera, ekoiztutako hori saltzeko aukera izango dute eta salmenta hauetatik lortutako irabaziek egingo dute posible mikrokredituak itzultzea, osotasunean ez bada ere, bai %90ean.

Bada, bide hau jarraituz, Mundukidek eskualdeko ekonomiaren hobekuntza, zein gosete, desnutrizio eta menpeko ekonomia ereduari aurre egitea du jomuga.

Ekimen honetako partaide izateko interesa duenak informazio diptikoak izango ditu eskuragai Laboral Kutxak EAEn zein Nafarroan dituen bulegoetan eta kredituak eman ahal izango dira Laboral Kutxaren kontu korronte honetan: 3035 0001 56 0010122192.

# 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen dute

## Plataforma sortu dute Gipuzkoan, erretiratuen zazpi elkarteren artean osatutakoa: PAMG

**U.M./L.Z.** | DEBAGOIENA

"1.000 euroko pentsioa kobratzen dutenendako (eta asko daude askoz gutxiago kobratzen dutenak) hilero %0,25eko igoerak esan gura du, kopuruari begiratuta, 2,5 euroko igoera, eta hori oso barregarria da". Berba horiekin kalifikatu du Jose Rivierek, Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen elkarteko presidenteak, 2016an pentsioek izango duten igoera, Espainiako gobernuak onartutakoaren arabera. "Gainontzeko guztiaren igoera askoz ere handiagoa da. (...). Zapaterok pentsioak izoztu zituenetik gaur egunera arte galdu dugun erosteko ahalmena %10 baino handiagoa izan da. Eta galtzen segituko dugu; izan ere, egunkarien arabera, Madrilgo gobernuak ez ditu pentsioak %0,25 baino gehiago igoko harik eta superabita egon arte", gaineratu du Rivierek.



Jose Riviere. | LARRAITZ ZEBERIO

### 45.000 afiliatu inguru

Hark jakinarazitakoaren arabera, plataforma eratu dute erretiratuen gainean lanean dihardutén Gipuzkoako zazpi elkartek: Agijupens, Nagusilan, Duintasuna, Fevaas, Gepe, Helduak Adi! eta Helduen Hitzak. PAMG izena jarri diote, eta 45.000 afiliatu inguru batzen ditu; pentsio duinak aldarrikatzeko sortutako plataforma da, "eskubideetan eta erosahalmenean jasaten gabiltzan murrizketek kaltetutako pertsona ahulenen ahotsa" izateko helburuarekin jaiotakoa, alegia.

### Pobrezia-atariaren gainetik

Hala, PMAGk defendatzen duen ezaugarri nagusia da ez litzatekeela pobrezia-atariaren azpiko pentsio bakar bat ere egon behar. "Espainiako gobernuak sinatutako Europako Gutun Sozialak ezartzen du lanbide-arteko gutxieneko soldatak izan behar duela soldata garbiaren %60ren bestekoa; horrek Euskadin esan gura du 1.080 eurokoa izan beharko lukeela, 12 pagatan banatuta, eta horixe lortzea da gure helburua", esplikatu du Rivierek. "Gutxienekoa ezin da hura baino txikiagoa izan; beraz, gobernuak dirua atera beharko du edozein lekutatik (...); gizarte-segurantzaren pentsio sistema da babes sozialak duen oinarririk sendoena".

Hori aldarrikatzeaz bat, pentsiodunek duten balio produktiboa nabarmendu gura izan du pentsiodunen elkarteko presidenteak; arrazoia, ekonomikoki sostengu garrantzitsu bilakatu izana: "Bikote gazteei laguntzen diegu seme-alabak hazten, eta, krisiarekin, gure seme-alabak eurak ere bagaude laguntzen, euren hipotekak ordaintzen laguntzen... eta gainera, askori gaude laguntasun hori ematen; beraz, pentsioa gutxitzen badigute, gainera, noraino iritsiko gara?", galdetu du.

### Alargunendako %70

Pentsiodunen artean, alargunek bizi duten egoera mingotsari bereziki erreparatu dio Rivierek. Hain justu, haiek gaur egun kobratzen dute senarrak kotizatzen zuenaren %52, eta "plataforma horrek eskatzen du senarrak kotizatzen zuenaren %70 kobratzea", adierazi du.

Bestalde, gero eta sarriago pentsio planen defentsa egiten duten ahotsei dagokienez, arrasatearrak adierazi du plan horiek "sektore pribatu jakin bat potolotzeko" izateaz gain, "edozeinek" ezin duela halako bat egin, eta, oro har, PAMG dagoela "gizarte-segurantzaren kaxa bakarraren alde".

Edozein modutan, eta aldarrikapenak aldarrikapen, plataformak ez du mobilizazioetan hasteko asmorik, uste dutelako etengabe kalean egotea ez dela eraginkorra. "Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak uste du momentu puntualetan egin behar direla mobilizazioak; izan ere, itunak bulegoetan egiten dira, ez kalean".

# Ia 163.000 kilo elikagai batu zituzten azaroan

**UBANE MADERA** | BERGARA

Azaroaren 27an eta 28an Debagoienean egindako elikagai bilketa handiak utzitako datuak helarazi ditu asteon Bergarako Elikagaien Bankuak:162.990 kilo elikagai eta 41.957 euro laguntza-bonutan eman dute herritarrek. "Euro/kiloak kalkulatuz gero, 204.947 kilo batu ditugula esan beharko genuke, eta horrek 2016 osorako elikagai mordoa ematen digu. Gogoan izan iazko kanpainan 191.000 kilo batu genituela; beraz, %7 gehiago batu dugu", esplikatu dute elikagaien bankutik.

### Eskerrak

Gauzak horrela, eskerrak eman gura dituzte, beste behin, "bilketan, batutako elikagaien kontaketan, sailkapenean eta pisatze lanetan parte hartu duten boluntario guztiei, eta baita ere biziki eskertu nahi ditugu elikagaiak eta bonuak dirutan eman dituzten guztiei, euren ekarpenarekin kanpaina hau erabateko arrakasta izatea lortu dutelako", adierazi dute eskualdeko elikagaien bankutik.

# 2016an jaiotako Hego Euskal Herriko lehena, oñatiarra

## Lau emakume zeuden ingresatuta ama izateko eta Maddi Dorado Hernandez izan zen jaiotzen aurrena

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Urte zaharreko azken egunean afaltzen hasi aurretik joan ziren Arrasateko ospitalera Iñaki Dorado eta Tania Hernandez. Arratsalde erdian ere joan ziren, baina etxera bidali zituzten, oraindik goizegi zela eta. 22:00etan Tania sentitzen hasi zen uzkurdurak, baina, handiagoak ziren eta alaba zaharrena, Aihoa, senideekin elkartean utzi eta Oñatitik Arrasaterako bidea hartu zuten berriz Doradok eta Hernandezek. "Heldu ginenean berehala hartu gintuzten eta ordu pare baten umea besoetan izango nuela esan zidan emaginak. Eta horrelaxe izan zen, 00:03an jaio zen Maddi", kontatu du haren amak, Taniak.



Dorado Hernandez familia martitzenean Oñatin, kabalgatara bidean. | O.E.

### Mahatsak

Jaio eta gutxira jakin zuten Hego Euskal Herriko lehen jaioberria zela euren alaba. "Ospitalera etorri aurretik ez ginen aukera horrekin gogoratu ere egin, azken azterketan urtarrilaren 7ko data jarri ziguten eta. Baina ingresatu genuenean umea izateko lau emakume geundela esan zigun ospitaleko erizain batek, eta euren artean txantxak egiten hasi ziren, ea nor izango lehena ama izaten. Nire erditzea azkarra izan zen, epiduralik gabekoa, eta gure alaba izan zen lehena jaiotzen", dio Hernandezek.

Zorionak ematearekin batera, ea oparirik jaso duten galdetu diote askok eta askok Iñakiri eta Taniari. "Ez, ez dugu ezer jaso: ez fardelik, ez txupeterik, ez panpinarik ... ezer ez. Senarrari afaria eskaini zioten eta baita mahats-aleak eman ere, baina inongo erakunderik ez digu opariik egin. Lehenari opariak ematen dizkioten kontu hori ondo zabaldutako kaleko kontua dela uste dut", dio Hernandezek, barrez.




GOIENA

# Ehundik gora lagun Intxortan

Ehun lagun baino gehiago elkartu ziren urteko lehen domekan, urtarrilaren 3an, Intxortako tontorrean, presoak eta iheslariak gogoan dituen ekitaldirako. Salda beroa, alboka hotsak eta sagardoa izan zituzten tontorrean. Ondoren, urteroko ekitaldia eta argazkia egin zituzten *Askatasunera bidean preso eta iheslariak etxera* lelopean.

# ZIUn jarraitu arren, aparteko larritasunik ez du istripuan zauritutako aretxabaletarrak

**O.E.** | OÑATI

Santiago ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean jarraitzen du herenegungo auto istripuan larrien zauritu zen 44 urteko aretxabaletarrak. Etxekoek kontatu dutenez, eskanerra egin diote eta ez du barruko lesiorik. "Izan duen istripurako, pronostiko ona eman digute medikuek", adierazi du haren koinatuak. Beste zauritua, 58 urteko bergararra, Arrasateko ospitalera eraman zuten eta han artatu zuten.

Istripua eguazten goizean izan zen, GI-627 errepidean, Aretxabaletako saihesbidean. Noranzko banatan zihoazen bi autok egin zuten talka, aurrez aurre. Seat Ibiza eta Citroen Xsara marketako autoen arteko kolpearen ondorioz, azken auto hori irauli egin zen. Gidariak harrapatuta geratu ziren, eta suhiltzaileen laguntzarekin atera zituzten.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK
**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA
**LAURA ALUTIZ**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna,18 solairuartea
687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA
**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA
**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA
**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK
**NAGORE ARANBURU**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18, solairuartea, esk
685 72 01 42

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**UNAI SERRANO**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA
**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE
goiena.eus/komunitatea/



# Barru-kanpo, zubirik zubiri

Joan zara medikuarenera, artega, egonezin puntu batez zergatiaz guztiz jabe ez zarela. Eta aipatu dizu hitza, madarikatua bera. Anjel Lertxundik bere *Zu* nobelan putasemea deitzen dion bera, munstroa. Itsumustuan ulertuko duzu bizitza irauli egin dela istant batean. Amildegiaren jiran ikusi duzu zeure burua. Mila puskatan triskatu da zure bizitza. Saiatuko zara zatiok itsasten, txukuntzen, baina azken zatiak, ai azkenak! Babes-sare afektibo oso aberatsean erantsi daitezke soilik. Entzun diozu bai medikuari. Nork entzungo dizu zuri?

Gaur ere, ikusi du bazetorrela, errukarri, arimak behea jota; aspaldian sarri-sarri gurutzatzen dira lanerakoan. Ezin izaten dio begiradari eutsi. Maiz, beste bide bat hartu izan du berarekin trink ez egiteko. Ezikusia egin nahiago du, ikusiko balu, begiratu beharko liokeelako, eta ez da kapaz.

**Gu izatetik ni izaterako bidetzat ere jo daiteke bizitza**

Gertu nago, sufritzen ari da, lehertu da. Bere sufrimenduarekin bat egin dut, eta neure urdailean sumatu dut, tinko, gora datorrela, eztarrian sentsazio itogarria eragin arte. Bola deritzote. Eta ez naiz gai izan besarkada benetakoa emateko, sentitua bazen ere; sikiera, eskua sorbaldan igarri zezan ere ez diot eskaini, sorbalda bera ere ez. Gertu egon nahirik, baina…

Bizitzaren joanean, isolamenduaren kaiolaren hesiak tinkotzen doazkigulakoan nago, elkarrenganako zubiak zapuzten, edo ahultzen, behintzat. Gu izatetik ni izaterako bidetzat ere jo daiteke bizitza, deskubrimendu izan daitekeena, baina gu gabeko ni-dun bizitza laiotzean dagoen etxe bakartia da.

Eta, halaxe goaz bizitzan aurrera, ala atzera? Paolo Giordanoren zenbaki lehen bikiak baikina; distantzian gertu, baina entzun, begiratu edo ferekatzeko, oso urrun. Baldar, beldurti, izotz koxko bakarti, alderrai, ur epel bila, existitzen ote den zalantza etsipenezkoan murgildurik.

## USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.eus

# Ea ba aurten

Zutabe hau idazten hasi baino lehenago galdetu dit lagun batek ea zer eskatu diodan 2016ari. Gogoa asetzeko, erronkak betetzeko, pentsatutakoa planifikatzea eta egitea, besterik ez dela behar. Horixe ziurtatu dit.

Bizikletan ibiltzen hastea pentsatu eta horretarako arropa, kaskoa eta baita bizikleta berria erosi ere. Korrika egiten hastea pentsatu, eta horretarako arropa eta pultsometroa erosi. Egunak joan eta hilabeteak pasa, eta urte bukaeran bizikleta gainean 100 kilometro bakarrik egin eta korrika egitera bi aldiz bakarrik joan. Ezagutzen ditut horrelakoak.

Patinak eta babesak etxean ditut.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Ogroa

Garbiñe Ubeda
http://goo.gl/GBL5ap

Ilunpeko munstroa iratzarri egin da.

Lozorrotik atera da bat-batean, eta goseak amorratuta, aurrean jartzen zaion guztia jaten hasi da, atzaparka, irentsi eta irentsi, bazka amaigabean, aspaldiko partez.

Inork behar bezala ikusteko aukerarik izan ez duen arren, eta beraz, aho-atzaparrak nolakoak dituen esaterik ez badago ere, munstroa alimalekoa dela ziur da honez gero.

Ezerk ezin baitio ihes egin.

Eskura jarriz gero, akabo, bere korroskada ugarien indarrak salatzen duenez.

Txundituta dauzka bazterrak, seko izututa, hari planto egingo dionik ez baita artean sortu…

Ipuin klasikoren bat kontatzen ari naizelakoan? Bai eta zera ere.

Tentsioa areagotzeko *ebaki/itsatsi* formula ezaguna baliatu dudala aitortu arren, puntako astrofisikariak dira hitzon jabeak, eta deskubritu berri duten fenomeno harrigarriaz ari dira: gure galaxiaren muinean dagoen zulo beltzak —munstroak— inguruko materia oro xurgatzeari ekin dio, X izpien flashek —alegia, korroskadek— adierazten dutenez.

Ez dakite zergatik.

Ezta noiz aseko den ere.

Edo noraino helduko den, ustekabean hasi dela besterik.

Bizitza kasualitate hutsa dela frogatzeaz gainera, gure adimenaren neurria ilustratu digute konturatu gabe: hiru urteko haur ikaratiak gara unibertsoko misterioen aurrean.

# 'Oletakorta', ekonomia soziala zer den ulertzeko komikia

Jon Torner
http://goo.gl/grnklw

*Oletakorta, ekonomia solidarioko abentura bat* komikia plazaratu dute Alboan Fundazioak eta REAS Euskadi sareak, ekonomia soziala zer den azaltzea helburu duena.

Bost lagun ageri dira lehendabiziko binetan, mahaiaren bueltan eserita: "Proiektu bat jarri nahi dute martxan, gizartea eraldatzeko asmoz. Nekazaritza-turismoko baserri bat ireki nahi dute Mendatan (Gernika). Bertan, animalia batzuk, ortu ekologiko bat eta gozogintza eta ogi lantegi bat jarri. Funtsean, ekonomia solidarioko proiektu bat jarri nahi dute martxan".

"Ekonomia solidarioak ez du irabazi asmorik, eta honako irizpide hauen arabera jarduten du: ekitatea, lankidetza, ingurumen-iraunkortasuna, lanaren aitortza eta inguruarekiko konpromisoa".

Bidezko merkataritzaz mintzo da komikia, kontsumo arduratsuaz, elikadura burujabetzaz, software libreaz, banku etikoaz, aseguru-etxe eta energia-konpainia alternatiboez eta abar.

Komikiaren amaieran ekonomia solidarioa ardatz duten talde eta erakundeen zerrenda ageri da, gaian sakondu nahi duenarentzat lagungarri.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Etxera bueltan, denak ez horratio!

**Iñigo Arregi**
(Bergarako euskal preso politikoen aldeko elkartasun taldeko kidea)
Bergara

Abenduan Goienak argitaratu zuen erreportajea irakurri ondoren idazteko sortu zitzaidan beharrari nahi nioke bide eman: "Etxera bueltan, denak ez horratio!".

Lerro hauek irakurtzen hasi aurretik argi utzi nahi dut ez naizela erreportajea salatu, zuzendu edo osatu nahian ari. Aitzitik, aberasgarria iruditzen baitzait urtean zehar atzerrian lan edo bizi direnen eskualdeko herritarrei buruzko informazioa eta erreportajea argitara ekartzea.

Baina hizki larriz idatzirik zeuden lehen lerro haiek irakurtzeaz bat, bihotzean piztu zitzaidan su txikiaren berotasunak arnasa azkartu zidan. Eta nire burua, istant batez, ahotsik eta argazkirik ez duten horien aurpegien oroitzapenean iltzatu zen; eskubidea izanik ere, etxera, herrira edo bere ingurune hurbilera etortzerik ez duten euskal presoenean, alegia.

Beste askoren artean, baina, bereziki, Euskal Herritik milaka kilometrotara dauden bi bergararren aurpegietan; Gaztelu eta Askasibarrenean.

Horregatik, eta Goienak astero-astero gure iritziak argitaratzeko eskaintzen digun tartetxoan, bi kide hauen zein Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK) osatzen duten beste laurehun eta zortzi kideen espetxeko *bizimodua*-ri buruzko erreportajea egiteko baino gehiago, ukatzen dizkieten oinarrizko eskubideak salatu eta hauen aldarria nire egin eta zuei helarazteko baliatuko dut.

EPPK osatzen duten euskal presoak preso politikoak dira eta honako eskubide hauetan oinarritzen da euren aldarria:

Tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea; ez isolamendu eta ez jipoirik. Osasun zainketa duina izateko eskubidea. Senideen, lagunen eta abokatuen bisitak, gutun eta bestelako komunikazio bideak euskaraz egiteko eta ez interbenitzeko eta ezta murrizteko eskubidea. Ikasketak burutzeko eskubidea. Duintasun osoz ama eta aita izateko eskubidea. Askatasunerako eskubidea; zigorraren hiru laurdenak edota bi herenak bete dituzten presoei baldintzapeko askatasuna aplikatzea. Legez dagozkien erredentzioak aplikatzea eta larriki gaixo direnen berehalako kaleratzea. Euskal Preso Politikoen Kolektibo gisa, Euskal Herrian bizitzeko eskubidea bermatzea eta kolektiboak izendaturik dituen Mintzakidetzaren aitortza eta gainerako eragileekin harremanak izateko askatasuna.

Amaitzeko, elkarrekin horrenbeste kilometro, pasarte eta bizipen elkarbanatu ditugun senideak ere ez nituzke aipatu gabe utzi nahi.

Doakiela nire besarkada eta muxurik goxoena Eguberrietan etxera bueltan etorri ezin duten horien senide eta lagunei.

Eta zuri, irakurle, datorren urtarrilaren 9an preso politikoen eskubideen alde eta Euskal Herriratzearen alde Bilbon egingo den *Mugi daitezen harriak* manifestaziora animatu nahi zintuzket.

Amnistia eta autodeterminazioaren lortze bidean, euskal preso politiko gisa dagozkien eskubideen alde elkartzean baitatza etxera bueltan ekartzeko bermea.

# Pintaketak aldarrikatzeko

**Jone Uribe Etxeandia**
Arrasate

PNV-PSOE koalizioak gobernatzen duen Arrasateko Udalak azken hilabeteetako pintaketak salatu ditu behin baino gehiagotan, herria zikindu eta kaltetzen dutela esanez. Noski, testuinguru politikoan ez sakontzeko ahalegina dago Udalaren adierazpenen atzean, eta pintaketek, agitazio politikoaren baitan kokatutako ekintza diren neurrian, normalizazioak estaltzen dituen egoera bidegabeak indarrez azaleratzea dute helburutzat. Horren harira, hainbat hausnarketa egin nahi ditugu pintaketa horietako batzuk egin ditugun zenbaitek; izan ere, gure herrian normalizazio politikorako baldintzarik ez dagoela deritzogu.

Euskal Herriko 400 preso politiko baino gehiago daude oraindik, horien atzean gaixo larriak; eta guzti-guztiei erbesteratzea eta espetxe barruko sakabanaketa ezartzen zaie. Era berean, ehunka iheslari daude munduan zehar, oraindik Euskal Herrira itzuli ezinik. Gainera, hamaika epaiketa politiko abian dira, tartean Ino alkate ohia kartzelan sartzeko bat.

-Espainiak autodeterminazio eskubidea ukatzen digu euskaldunoi eta Estatuaren barruko gainerako herri zapalduei. Estatuaren mugak mantentzeko, Armada, Guardia Zibila nahiz gainerako poliziak zabaltzen ditu Euskal Herrian, lurralde hau Europa osoan biztanleko polizia gehien dituena bihurtuz.

-Espainiar Estatua, nahiz gure Autonomia Erkidegoa, ustelkeriak hartutako herria da. Demokrazia faltsu baten azpian, enpresa eta banketxeen aginpidea ezkutatzen da, erosita dauzkaten hainbeste alderdiren bitartez gauzatzen dena.

-Gudarien oroimena eta borrokarako deia zeharo kriminalizatua eta jazarria dago, horren froga dira urtero horren harira gertatzen diren sarekada eta atxiloketak.

Beraz, kontua ez da herrietako hormak politagoak edo zatarragoak diren margoketa eta aldarrikapen politikoekin. Pintaketak, agitazio politikoa eta borroka ezinbestekoak dira hemen eta orain, herri antolatua erresistentziarako eta borrokarako prest dagoela gogorarazteko, eta etsaiari ozen esateko ez dugula onartuko bake faltsurik. Gogoratu dezagun herri honek matxinatzeko eskubidea duela.

# Mila esker, Tobera!

**Aitor Agiriano**
Eskoriatza

Bosgarrena izan da aurten taularatu den Tobera. Aretxabaletak salatu du Eskoriatza, baina herri txikiek hartu dute beraien esku epaiketa. Erdi Aroko tradiziotik datorren antzerki obra satirikoa da, herritarrek herritarrentzat egindakoa. Azken hauek dira protagonista bertan, eta beraien prestutasunari esker burutu izan genuen, Inuzente egunean, Tobera.

Horregatik, behin eta berriz, eskerrik asko esatea besterik ez daukat.

Hasieratik parte hartzeko prest egon eta behar izan den guztian fin-fin lanean aritu izanagatik, lantaldean giro ezin hobea sorrarazteagatik eta lotsak alde batera utzi eta eszenatoki gainera igotzera ausartu izanagatik.

Artista handiak zarete, mila esker!

Niretzat erronka izan da oraingoan eszenatokia alde batera utzi eta beste aldean antolatze lanetan aritzea. Aspaldidanik banuen gogoa nire herrian antzerkiarekin lotutako proiekturen bat burutu ahal izateko eta Bagara Herrigintzan elkarteak eman dit gauzatu ahal izateko aukera, eskerrik asko.

Prestaketa lanetan bidelagun izan ditudan guztiak ere goraipatu nahi nituzke. Alde batetik, Eskoriatzako Udala proiektuaren aldeko apustua egitearren eta beharrezko izan ditugun baliabideak eskura jartzearren. Bestetik, soinu eta argiztapen lanetan ibili diren teknikari guztiei. Kiroldegi bat ez da antzoki bat eta beraien lanari esker antzoki paregabe bat izan genuelako antzezpena burutu ahala izateko. Baita Goiena Komunikazio Taldeari ere. Debagoieneko herri guztietara Toberaren nondik norakoak prentsa, telebista, irrati... bidez guztiei helarazteagatik.

Azkenik, hasieran aipatu ditudan Debagoieneko herritar parte hartzaile guztiak. Epaile, abokatu, fiskal, pregoilari, gurutze, testigu, herri "txiki eta ahaztuen" ordezkariak, atsoak, dantzariak, txistulariak... eta beste hainbat pertsonaia hezurmamitu dituzuenoi eta baita beste lan batzuetan laguntzen ibili zareten gainontzeko guztioi ere. Zerrenda luzea da eta ez dut inor ahaztu nahi, zuotako bakoitzak egin baitu posible abenduaren 28an, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, taularatutako antzezlana. Azkenik, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi Nagore, Onintze eta Arkaitz, eskerrik asko!

Bosgarrena amaituta, etor daitezela seigarrena, zazpigarrena, zortzigarrena... jarrai diezaiola Toberak, urtez urte, 2011. urtean ekindako bideari.

Mundialak zarete!

Mila miloi esker guztioi!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

b+b
batu-banatu
*banaketak neurrira*

Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

**Banaketa aukera ezberdinak**
• Banaketa **masiboa**.
• **Autoz auto** banatzea.
• **Kartelak** ipini.
• **Banaketa pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
• **Goiena papera eta Puntua**rekin batera, ostiraletan.
***Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.***

Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.



# HERRIAK



Pagoak eraztunduta, Oñatiko Iturrigorri basoan. | GOIENA

OÑATI

# Pagoak eraztundu dituzte Iturrigorrin

▶ Basoetako espezieen aniztasuna bermatzeko teknika berritzailea da

▶ Hildako egurra lortzea ezinbestekoa da animalien biziraupenerako

JOSU BILBAO | OÑATI

Basoko landare eta animalia espezieen aniztasuna zaintzeko, zuhaitzen enborrak eraztuntzen aritu dira Gipuzkoako Diputazioko Baso Zerbitzuko teknikariak abenduko azkeneko egunetan Oñatiko Iturrigorri basoan. Baso hori 2006. urtean erosi zuen Oñatiko Udalak, eta hasieratik helburua izan da Arantzazutik gora dagoen eremu hori baso esperimental bilakatzea.

"Baso esperimentalak helburu ezberdinak ditu: alde batetik, ekoizpena; baina, bestetik, baita babestea ere. Orduan babesteko helburua kontuan hartuta, horrelako lanak ezinbestekoak dira. Zuhaitz bat eraztuntzen dugunean, azala eta egurra pixka bat kentzen diogu, bi edo hiru urtean zuhaitz hori usteltzen joatea eta enbor hori mendian hilda gelditzea lortu nahi delako. Izan ere, tente dagoen hildako egur horrekin hainbat helburu lortzen direlako", azaldu du Gipuzkoako Diputazioko Baso Zerbitzuko teknikari Valentin Mugartzak.

Motozerrarekin edota aizkorarekin egin daiteke enborren eraztuntzea. Zuhaitza behera botaz gero, inguruko beste landareak apurtzeko arrisku handia dago, eta, horregatik, teknika berri hauek erabiltzen dira. Prozesu honekin, zuhaitzak apurka-apurka joaten dira sikatzen.

Iturrigorri basoaren kasuan, pagoei soilik egin diete eraztuntzea: " Baso honetan ia %99 pagoa da eta interesatzen zaiguna pagoa ez den beste espezieei laguntzea da. Horien artean, haritzak, astigarrak, lizarrak, elorriak edo gorostiak aurki ditzakegu. Horretarako, espazioa behar dute espezie horiek. Ondoko zuhaitzak kenduta argitasuna eman, eta, azkenean, hazteko leku handiagoa eman. Basoaren aniztasuna bilatzen dugu, azken finean".

### Hildako egurra

Basoetan ezinbesteko garrantzia du hildako egurrak. Izan ere, materia organikoa sortzeaz gain, animaliendako babesteko edota janaria bilatzeko tokia ere bada. "Eraztuntzearekin hildako egurra sortzen dugu. Baso baten hildako egurra oso garrantzitsua da, eta hemen berez hildako egur gutxi dago. Hori arazo bilakatu daiteke, eta horrela tente geldituko den hildako egurra sortzea lortzen dugu", azaldu du Mugartzak.

Usteltze prozesu geldo horretan, egurrak hainbat baliabide emango dizkio basoari. "Alde batetik, materia organikoak lurra aberastuko du, baina, beste aldetik, hainbat animalia espezierendako oso garrantzitsu bilakatuko dira hildako egur hauek. Babesteko tokia, janaria topatzeko edo ezkutatzeko habitata sortzen da, azken finean", adierazi du Valentin Mugartzak, Baso Zerbitzuko teknikariak.

### Lan berritzaileak

Teknika horiek kritikak ere jaso dituzte, basoarendako kaltegarriak izan daitezkeelakoan. Hala ere, lortu nahi diren helburuak jendeak ondo ulertzea da gakoa, Diputazioko Baso Zerbitzuaren arabera. "Horrelako lanak nahiko berritzaileak dira, eta batzuetan jendea nahiko harrituta gelditzen da. Horregatik, garrantzitsua da lortu nahi duguna ondo azaltzea, askotan ez delako ulertzen zertarako egiten diren horrelako lanak", azpimarratu du Valentin Mugartzak.

Teknika hori beste toki batzuetan ere bultzatu izan du Gipuzkoako Diputazioak, baina Iturrigorri basoan ari dira lantzen, batez ere: "Hiru edo lau urte badaramatzagu horrelako lanak egiten Oñatin. Ikusi behar duguna horrelako baso baten zergatia da. Duela mende bat edo gutxiago, adibidez, erabat ustiatzen ziren baso hauek egurra ateratzeko asmoarekin. Orain beste helburu batzuk bilatzen ari gara, guztiz ezberdinak".

### Tontorrak

Enborrak eraztuntzeaz gain, pago batzuk moztu egin dituzte, horiekin tontor berezi batzuk egiteko. Izan ere, hildako egurra oso garrantzitsua da, eta, horregatik, enbor ezberdinez osatutako tontorrak egiten dituzte teknikariek, egurrak ahalik eta denbora gehien iraun dezan. Lur gainean uzten bada, pagoaren egurra beste zuhaitz batzuena baino askoz azkarrago usteltzen da, eta teknika honekin gehiago irautea lortzen da.

Horrela, zuhaitzen enborrak eraztuntzeaz gain, beste enbor batzuekin basoan tontorrak egitea ezinbestekoa dela dio Gipuzkoako Diputazioko Baso Zerbitzuko teknikariak: "Tontorraren beheko aldean enbor meheak edo txikia direnak jartzen dira, eta goian enbor lodienak. Izan ere, egur hori lurretik zenbat eta aldenduen egon, orduan eta gehiago iraungo du. Berez, pagoaren egurra nahiko azkar usteltzen da, baina, modu honetan, urte pila iraun ditzake".



Motozerrarekin zuhaitzak eraztuntzen. | GOIENA

# Amaia Azpiazuk hartu du Ongizate Sailaren ardura

## EAJko zinegotzia da sailaren burua Arrasate Baleikek Udal Gobernuarekin zuen akordioa apurtu ondoren

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Amaia Azpiazu da Udaleko Ongizate Saileko burua abenduaren 29az geroztik. Izan ere, orduan eman zuen bukatutzat Baleike alderdiak Udal Gobernuarekin zuen akordioa.

Azpiazuk "ezustekoa" hartu zuen, "bat-batean" etorri zelako horien erabakia, baina "ilusio handiarekin" eta "lanerako gogotsu" dagoela jakinarazi du: "Batez ere bi gai nagusiri eman gura diegu bultzada: aterpetxeari, orain gutxieneko baldintzarik ez duelako betetzen, eta zaharren egoitzari. Hain zuzen, Aldundiak abian duen Kabia proiektuari bultzadatxo bat eman gura diogu".


Zeziaga, Garitano, Azpiazu eta Ezkurra jeltzaleak abenduaren 29an. | G.A

### Baleikeren arrazoiak

EAJ eta Baleike akordiora heldu ziren uztailean eta Ongizate Sailaren kudeaketa Baleikeren esku geratu zen. Horretarako bi puntu adostu zituzten: hiritar parte hartzearen gaineko ordenantza bat egitea; eta Udal Gardentasun webgune bat eratzea hiritarrei udaletxeko funtzionamenduaren eta proiektuen gainean informatzeko, besteak beste. Baleikeren esanetan, gobernu taldeak eta EAJ alderdiak "ez dituzte puntu horiek bete" sei hilabeteotan: "Ez dute inolako interesik edo betetzeko jarrerarik erakutsi".

Horrez gain, diote gobernu taldeak Ongizate Saila "kudeatzeko autonomia" eman ziola Baleikeri akordioaren arabera, kudeaketaren ardatzetako bat izanik saileko aurrekontuaren eraketa: "Eta konfiantza hau puskatuta geratu dela deritzogu, saileko aurrekontuak aurrera atera ahal izateko baldintzak jarri zitzaizkigun momentuan". Hori horrela, akordioa bukatutzat eman dute eta oposizioan jarraituko dutela lanean adierazi.

### Udal Gobernuaren "harridura"

Arrasateko jeltzaleek "harridura" eta "ezin ulertua" agertu dute, eta salatu egin dituzte Baleikek emandako arrazoiak. Herritarren parte-hartze ordenantza sortzeari dagokionez, zera argitu dute: "Udalak lanean dihardu irailetik Innobasquerekin proiektu pilotu batean". Eta Udal Gardentasun webgunearen sorreraren harira diote abenduaren 10ean Udalaren webgunean gardentasun atari bat ireki zela "prozesu zabalago baten lehenengo urrats gisa".

Gaineratu dute Baleikek "askatasun eta autonomia osoz" kudeatu duela Gizarte Zerbitzuen saila: "Salatu egiten ditugu erabilitako argudio faltsuak Gizarte Zerbitzuen kudeaketari uko egiteko askatasunik eza aipatuz. Sail honentzako 2016ko aurrekontuak alderdi moreak berak prestatu eta proposatutakoak dira".

EAJrekin batera gobernua osatzen duen PSE-EEko Oscar Garcia zinegotziak dio Baleikeren "gestiorik ezaren ondorio" dela erabakia: "Ez dute ekarpenik egin, ez ideia berririk edo proiekturik sartu Udalean. Agerikoa da hori euren aurrekontuan ez dutelako proiektu berririk aurkeztu; aterpe berriaren proposamena, adibidez, Alderdi Sozialistarena da". Eta gaineratu du: "Euren kudeaketaren erabateko porrota da, ez dutelako gaitasunik batzordea aurrera eramateko".

# Pago gorria aukeratu dute Arrasate pasealekurako

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Herritarrek aukeratu dute: Arrasate pasealekuan pago gorria landatuko dute Zuhaitz Egunean, hilaren 16an.

Arrasateko Udalak deitutako aukeraketa prozesuan 329 pertsonak hartu dute parte eta gehiengoak –103–, pago gorria aukeratu du –botoen %31–. Bigarren aukera haritza izan da 91 botorekin, hirugarrena ezkia 74rekin eta azkena astigarra 61ekin.

### Boto gehien Internetez

Udalak lau zuhaitz mota proposatu zituen, eta gustukoena aukeratu behar zuten herritarrek. Horretarako, bi bide izan dituzte: BAZen bulegoa eta Udalaren webgunea. Bada, azken hori izan da arrasatear gehienek aukeratu duten bidea: 329 botoetatik 244 jaso dira Internet bidez.

### Izaera propioa emateko

Arrasate pasealekuko eraberritze lanen ostean sortutako plazari izaera propioa eman gura diote. Pago gorria hilaren 16an landatuko dute han, 13:00etan.


# ZUHAITZ EGUNA 2016



## URTARRILAK 16, ZAPATUA

**Zuhaitz ferixia eta baserritarren azoka**

**Arrasaten.** Seber Altube plazan (08:00 -14:00)

| Mintegia | Espezieak | Enkarguak |
|---|---|---|
| Areitio - Zaldibar | Fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak | 608879352 |
| Artadi - Igorre | Basoko landare autoktonoak | 680937875 |
| Belar - Zaldibar | Fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak | 629484151 |
| Etxebarria - Gatika | Fruta-arbolak | 646514154 |
| Lurberry - Zarautz | Basoko fruitu txikiak, ekologikoak | 657719685 |
| Udalatx - Arrasate | Basoko fruitu txikiak, ekologikoak | 690610822 |

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

# Udal zerbitzuen partida da handiena 2016ko udal aurrekontuan

- Ia 35,5 milioiko aurrekontua onartu du Udal Gobernuak, iazkoa baino %1,42 handiagoa
- Bi osoko zuzenketa eta zazpi partzial aurkeztu dizkiote oposizioko alderdiek, baina ez dute aurrera egin

**G. ARANA/M. ALTUBE** | ARRASATE

Urtea bukatu aurretik onartu zuen Arrasateko Udalak 2016ko aurrekontua: 35.443.060 euro. Iazkoarekin alderatuz gero %1,42 handiagoa da. Gobernu taldea osatzen duten EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin (11, guztira) onartu zuten abenduaren 29an. Gainerakoek, hau da, EH Bilduko zazpi zinegotziek, Baleikeko biek eta Irabazikoak, kontra bozkatu zuten.



Udabaltzarreko kideak aurrekontuaren gainean eztabaidan abenduaren 29an egindako osoko bilkuran. | GOIATZ ARANA

### Udal zerbitzuetara diru gehien

Udalari dagokion aurrekontua 32 milioi euro pasatxo da eta Iturbide egoitzarena ia hiru milioi eta erdi euro. Batzordeei erreparatuz gero, Zerbitzuak Sailera bideratu dute diru gehien (%31,48); ondoren, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasunera (%16,37); eta hirugarrenik, Kirola, Gazteria, Berdintasuna eta Hezkuntzara (%11,41). Inbertsioak egiteko, ostera, 5.722.959 euro gorde dituzte, eta proiekturik garrantzitsuenetakoak izango dira San Josepeko berrurbanizatze lanak (600.000 euro); Etxaluze-Musakola bidegorria (547.000 euro); eta bide publikoen urbanizatze eta asfaltatze lanak (341.000 euro).

Anuska Ezkurra zinegotzi jeltzaleak azaldu zuen aurrekontuak "erreminta finantzario bizi bat" direla, eta saiatu direla "zuhurtziaz" jokatzen eta aurrekontu "aktiboak" egiten, "arrasatearren beharrei erantzuteko". Eta gaineratu zuen: "Ez dira aurrekontu perfektuak izango, baina saiatu gara ahalik eta egokienak egiten".

PSE-EEko Oscar Garciak horri gehitu zion ez direla eurek, bakarka, aurkeztuko lituzketen aurrekontuak, baina koalizioan egonda "adostasunera" heldu direla: "Uste dugu urte zail bati aurre egiteko modukoak direla".

### EH Bilduk zuzenketa partzialak

Oposizioko kideak ez ziren bat etorri proposamenarekin. Egun batzuk lehenago elkartu zen Ogasun Batzordean hainbat emendakin aurkeztu zituzten horiek, eta batzuk onartu ere bai, besteak beste Arrasateko diagnostiko soziala egiteko eta Memoriaren gaia lantzeko partida berriak sortzea. Beste emendakin batzuk, baina, ez ziren onartu eta osoko bilkuran aurkeztu zituzten, EH Bilduk, esaterako, zazpi zuzenketa partzial. Arrasatek Hezi ekimenarekin, azokarekin, euskararekin, hileta zibilekin, "Euskal Herriaren eraikuntzan lagunduko duten" proiektuetarako laguntzekin eta etxebizitza eskubidearekin zuten zerikusia. EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten guztietan; eta Baleike eta Irabazi alde azaldu ziren kasu batzuetan eta abstenitu egin ziren beste batzuetan; hortaz, ez zituzten onartu. Zuzenketetako bat, berriz, Emakume Txokoaren segurtasunarekin zerikusia zuena, erretiratzea erabaki zuen EH Bilduk osoko bilkuran bertan, Maria Ubarretxena alkateak zera hitz eman eta gero: jarrera "irekia" izango zutela, urtarrilean batuko den Segurtasun batzordetik zer ateratzen den zain geratzen direla eta ez dutela arazorik diru partida horri izena aldatzeko, hau da, bideo zaintza moduan beharrean beste modu batera izendatzeko.

### Bi osoko zuzenketa

Baleikek eta Irabazik osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten, baina ez batak ez besteak ez zuten aurrera egin. Igor Urizar zinegotziak azaldu zuen aurrekontuak ez zirela "behar beste denboraz" landu, herritarren "parte-hartzea ez zela aintzat hartu" eta Ongizate Saileko aurrekontua kudeatzeko orduan "presioa" jasan zutela. Bere alderdiaren eta Irabaziren aldeko botoak soilik eskuratu zituen horrek; EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten eta EH Bildu abstenitu egin zen.

Juan Luis Merinok, Irabaziko zinegotziak, "galdutako aukera" moduan definitu zuen 2016ko aurrekontua: "Langabezia, etxebizitza eskubidea, ezberdintasun sozialak, ingurumena... izan beharko lirateke kezka nagusiak, baina, horri guztiari erantzuna eman beharrean, krisia gainditua balego moduan egin du aurrekontua gobernu taldeak. Herri eredu ezberdinak ditugu". Irabazik eta Baleikek bakarrik bozkatu zuten alde; EAJk eta PSE-EEk, aurka; eta EH Bilduk abstentzioa jo zuen.

### "Denboraz justu"

EH Bilduko Eneko Barberenak esan zuen oinarrian eurek 2015ean aurkeztutako aurrekontua ikusi arren, hainbat puntutan bat datozela osoko zuzenketetan esaten zirenekin; ez zela aurrekontuak lantzeko "nahikoa denbora" egon; eta ez zutela ikusten egun Arrasaten dagoen %15eko langabezia tasaren edo etxebizitzen gaiaren gaineko inolako erreferentziarik. "Uste dugu aukera galdu dela, urtebetez, politika aurrerakoietan sakontzeko", gaineratu zuen.

Jeltzaleek eta sozialistek, biek, onartu zuten "denboraz justu" ibili zirela, eta datorren urtera begira etxeko lanak lehenago egiteko konpromisoa hartu zuten. Alkatea "pozik" azaldu zen aurrekontua aurrera aterata, baina esan zuen "malgutasuna" igarri zuela faltan kontra bozkatu zuten EH Bildu, Baleike eta Irabazi alderdien partetik.

### Presoen aldeko bandera

Galda eta eskaeren tartean, ostera, Arrasateko Preso eta Iheslarien Senideen elkarteak *Euskal presoak Euskal Herrira* lelodun bandera eman zion Ubarretxena alkateari, urtarrilaren 9ko manifestazio egunera arte udaletxeko balkoian zintzilikatzeko eskaera eginda.

### UDAL AURREKONTU OSOA

| ERAKUNDEA | 2016 | 2015 | ALDAERA % |
|---|---|---|---|
| **Udala** | 32.078.540 | 31.525.790 | +1,75 |
| **Iturbide egoitza** | 3.433.770 | 3.537.040 | -2,92 |
| **OROKORRA** | **35.443.060** | **34.945.600** | **+1,42** |

* Orokorra da batura, barne transferentziak kenduta

### GASTUAREN BANAKETA BATZORDEKA

| BATZORDEAK | EUROAK | % |
|---|---|---|
| **Gobernu Organoak** | 2.662.420 | 8,30 |
| **Kultura eta Euskara** | 3.623.360 | 11,30 |
| **Finantza-zorra** | 741.960 | 2,31 |
| **Ongizatea** | 2.101.390 | 6,55 |
| **Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasuna** | 5.252.770 | 16,37 |
| **Pertsonala eta enplegua** | 2.886.750 | 9 |
| **Merkataritza, Turismoa, Teknologia eta Ekonomia sustapena** | 285.100 | 0,89 |
| **Zerbitzuak** | 10.099.190 | 31,48 |
| **Kirola, Gazteria, Berdintasuna eta Hezkuntza** | 3.661.420 | 11,41 |
| **Ogasuna** | 764.370 | 2,38 |
| **GUZTIRA** | **32.078.730** | **100** |

## Saria, euskaraz jarduteаrren Twitterren ere

Udalarekin Twitterren ere euskaraz jardutearren saria jaso dute Maite Anayak eta Onintza Belategik. *Arrasateko Udalarekin ere euskaraz* kanpainako azken sarituak dira, eta jaso dituzte Ibai-Arteko dendetan gastatzeko 50 euroko bonua eta *Puntua* aldizkariko harpidetza.





MIREIA LARRAÑAGA

# Autobusak izango dira biharko Bilboko manifestaziora joateko

Euskal presoen etxeratzea eskatzeko eta dispertsioa salatzeko antolatu dute

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Sare Herritarrak antolatuta eta *Mugi daitezen harriak* lelopean, bihar, urtarrilak 9, Bilbon egingo duten dispertsioaren aurkako manifestazioan parte hartzera deitu ditu herritarrak Arrasateko Sarek.

**Autobusak**

Bilbora joateko autobusak antolatu dituzte aurten ere. Goizez joan nahi dutenek Irati tabernan erosi ahal izango dituzte txartelak. Arratsaldez joan nahi dutenek, berriz, Iratin, Kajoin, Taupan, Txitxinpen eta Menetan erosi ahal izango dituzte.

Txartelen prezioa 10 euro da. Goizeko autobusak Garibaiko geltokitik aterako dira 11:00etan, eta arratsaldekoak, berriz, 15:00etan, toki beretik. Manifestazioa arratsaldeko bostetan aterako da Bilboko Casillatik, eta udaletxe aurrean amaituko da. Autobus guztiak mobilizazioa amaitzean abiatuko dira bueltan Arrasatera.



Urtarrilaren 31n egindako elkarretaratzea. | ARRASATEKO SARE

**Atxikimenduak**

Abenduaren 31n, elkarretaratze jendetsua burutu zuten Herriko Plazan, presoen gerturatzea eskatzeko eta biharko manifestaziora joateko dei egiteko.

Bestalde, Gabonetan Seber Altube plazan *Zeuk be ebatu soka* ekimena egin zuten, herritarrei euren atxikimendua erakusteko aukera emanez. Hala, soka bat jarri zuten, eta hari tiraka atera zuten argazkia 200 pertsonak baino gehiagok.

Hainbat udal ordezkarik ere erakutsi dute euren atxikimendua. Esaterako: EAJko Amaia Azpiazuk eta Amaia Zeziagak; EH Bilduko Eneko Fernandezek, Itxaro Artolak, Maialen Zabaletak, Amaia Larrañagak, Eneko Barberenak eta Piter Encinasek; eta Baleikeko Igor Urizarrek, Eva Abuinek eta Urki Larreak.

# Kultura ekimen ugari urtarrilean, 2016ari ongietorria emateko

'Zergatik, Jamil?' antzezlana izango da etzi

M.T. | ARRASATE

Eneko Sagardoi eta Mikel Martinez aktoreen *Zergatik, Jamil?* antzezlana ikusteko aukera izango da domeka honetan, urtarrilak 10, Amaia antzokian, 19:30ean hasita. Memoria galdu ostean zaintzen zuen gizona hil zuela esan dioten Jamilen istorioa kontatzen du.

Umeentzako antzerkia ere izango da. Hilaren 30ean, Logela Multimedia konpainiaren Barbantxo antzezlana izango da Amaia Antzokian. 3D-n ikusi ahal izateko betaurrekoak banatuko dituzte.

**Jabier Muguruza**

Jabier Muguruza musikari beteranoak bakarkako 14. lana aurkeztuko du, *Tonetti anaiak* izenekoa. Hilaren 23an eskainiko du kontzertua, Amaia antzokian, iluntzeko zortzietan.

Disko honetan, Muguruzak berak idatzitako testuak nagusitzen dira. Hala ere, hainbat kolaboratzaileren laguntza ere izan du; Iñaki Irazuk, Lourdes Oñederrak, Harkaitz Canok eta Gerardo Markuletak parte hartu dute lanean.

**Udazkena Debagoienean**

Urtarrilaren 15etik 30era bitartean, *Udazkena Debagoienean* izeneko argazki erakusketa kolektiboa izango da Kulturateko klaustroan. Mostra osatuko duten lanak salgai izango dira, eta bertatik lortutako dirua Aspanogira, minbizia duten umeen gurasoen Gipuzkoako elkartera, bideratuko dute. Azaroan, izen bereko lehiaketara aurkeztutako lanik onenak erakutsiko dituzte.

**Zinema**

Bihar, zapatua, Spielbergen *El Puente de los Espías* filma izango da Amaia antzokian ikusgai. 19:30etik aurrera. Astelehenean bigarren emanaldia izango da, 20:30ean. Bihar, umeentzako *Los cinco y el secreto de la pirámide* emango dute, 17:00etan.

## Berezia izango da urtarrileko Jai Zale tabernako egitaraua, lehen urteurrena ospatuko baitute

M.T. | ARRASATE

Pasa den zapatuan, urtarrilaren 2an, Ready Steady laukotearen kontzertua izan zen Jai Zale tabernan, urteko lehena. Hileko ohiko egitarauarekin jarraituz, domeka honetan Donostialdeko Railes taldearen emanaldia izango da, 19:30etan hasita.

**Urteurren festa**

Hilaren 15erako, 16rako eta 17rako, hurrengo aste bukaerarako, hain zuzen, tabernaren lehen urteurrena ospatzeko eta proiektuan "modu batera edo bestera" parte hartu duten guztiei eskerrak emateko ekimen bereziak antolatu dituzte. Hiru egun horietan kontzertuak, bertso saioa eta bakarrizketa izango dira.

**Mara eta Hasier Larrea**

Hilaren 22an, berriz, egubakoitza, Mara taldearen kontzertua izango da, 22:30ean, eta bukatzeko, hilaren 29an, hileko azken egubakoitzean, Hasier Larrea arituko da mikrofono aurrean, hori ere 22:30ean.

## Suxe Santinen 'Paisajes astronómicos' argazki erakusketa ikusgai dago Kajoi tabernan

Martitzenean, urtarrilak 5, inauguratu zuten Kajoi tabernan Suxe Santin arabarraren *Paisajes astronómicos* izeneko argazki erakusketa. Proiektu komun bat osatzen duten 14 argazkiz osatuta dago erakusketa. Argazki horiek guztiak gune berean aterata daude; Madrilgo Rio parkean, hain zuzen. Autoreak azaldu duenez, proiektu honekin hauxe erakutsi nahi du: "Nola hiritarrok gune publikoak modu guztiz desberdinean aprobetxatzen ditugun, okupatzen dituen subjektuaren arabera". Santinen mostra hilabete batez egongo da ikusgai Kajoi tabernan.




JUAN DIEGO INGELMO

## Aratusteetako kartela Castellotik

Juan Diego Ingelmok (Burriana, Castello) irabazi du 2016ko Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa. Dragoia da irudiko protagonista nagusia. Dotore jantzita ateratzen da sardina lata batetik. Kartel koloretsua aurkeztu du irabazleak eta horren truke 400 euro irabazi ditu. Lehiaketara hamalau lan aurkeztu dituzte.

## Txikilandiak 25 urteurrena bete du

Txatxilipurdiren Gabonetako parkeak ehunka neska-mutiko batu ditu, euskaraz jolas egiteko. Igerilekuan, Uarkapen eta gaztetxean adinaren arabera banatutako askotariko guneak egon dira hiru egunez.



MIREIA BIKUÑA

## Errege magoen bisitarekin gozatu zuten

Azken orduan karroza apurtu egin bazen ere, Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoek ez zuten hutsik egin. Euren laguntzaileekin batera kalerik kale ibili ziren, Arrasateko neska-mutikoei gozokiak banatzen eta euren gutunak jasotzen.



ANGEL GARTZIA W



Ekimenaren bultzatzaileetako batzuk, arropa poltsekin. | JULEN IRIONDO

# Errefuxiatuentzat laguntza biltzeko taldea sortu da: Hotz

Arropa bilketa jarri dute martxan, eta ekimenak beste hainbat herritan ere sorrarazi du interesa

JULEN IRIONDO | BERGARA

Bergarako bospasei lagunengandik sortu zen ideia, abenduan, errefuxiatuen krisiak eragindako egoera gordinarekin kezkatuta. Hotz izeneko elkartea martxan jarri, eta taldea bikoiztu dute dagoeneko. Ez hori bakarrik, ekimenak Bergaratik kanpo ere sorrarazi du interesa, eta inguruko herrietako hainbat lagunek ere erakutsi du ekimenean parte hartzeko gogoa; horrez gain, beste zenbait herritan sortutako ekimenekin ere badihardute harremanetan.

Oraingoz, abiarazi duten lehen ekintza "Europa ekialdeko errefuxiatu kanpalekuetara bidaltzeko arropa bilketa masiboa" izan da. Hasi besterik ez da egin, baina Hotz elkarteko kideek diote erantzun polita ari direla jasotzen herritarren partetik.

Askotarikoak jasotzen dituzte: neguko arropa; barrukoa; txano, eskularru eta lepokoak; oinetakoak; manta eta lo zakuak; motxilak; baloi eta pilotak... Emango direnak egoera onean egon daitezen eskatzen dute. Horiek uzteko lekuak hainbat dira: Laino, Labegaraietako kiroldegiko taberna, Hamaika taberna eta Espolon School of English –Saioa Masajeak ere bai Elgetan–.

Hotz elkartetik gustura hartuko lukete arropak utzi ahal izateko puntu gehiago; horrez gain, Udalarekin harremanetan ere badira, jasotako dena gordetzeko lokal bat lortu nahian. Enpresa eta abarrekoen ekarpenak jasotzera ere irekita daude; horrekin batera, bailarako arropa ekoizleengana jotzeko asmoa ere badute, soberakinak eta akatsak dituztenak jasotzeko. Laguntza kanpalekuetara bideratzeko moduak aztertzen ere ari dira.

**Harremanetarako: Facebook**

Elkarteko kideekin harremanetan jartzeko, Facebookeko orrialdea dago eskura. Elkartekoek pozik hartuko lukete laguntzeko prest dagoen jende gehiago ere.

## Errege Magoei harrera beroa egin zieten herritarrek, kabalgata pasatzerakoan

J.I. | BERGARA

Jende ugarik egin zien harrera Errege Magoei herriko kale bazterretan, martitzenean. Kultura etxe paretik abiatu zen kabalgata 19:00etan, eta ume eta nagusien begiradapean zeharkatu zuten herria, zaldiz, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek, plazan amaitzeko.

130 lagun inguruk parte hartu zuten, artzain, tronpeta eta danbor jotzen, morroi eta soldadu, errege estimatuekin batera. Agurrak eta gozokiak banatu zituzten Errege Magoek, herritarrengandik jasotako maitasunaren truke. Eta kabalgata amaituta, parrandarako garaia batzuentzat, etxeratu eta, biharamunean altxatzean topatuko zituzten oparien zain, ilusioz gainezka laster oheratzekoa beste batzuentzat.



Baltasar, zaldi gainean, Ibargarain. | J.I.



Danbor joleak, kabalgatako beste une batean. | J.I.

# Mosaikoaren ostean, zita berria Bilboko kaleetan




Abenduaren 31n San Martin plazan egindako mosaikoa. | HATOR HATOR EKIMENA

J.I. | BERGARA

Bergaratik ere egongo dira autobusak bihar, zapatua, Sarek deituta Bilbon egingo den manifestaziorako. Arrano eta Pol-Pol tabernetan eman daiteke izena. Bi autobus egongo dira: bat goizean abiatuko da, 11:00etan, eta itzulera ordua 22:00etan izango du, eguna pasa nahi dutenentzat; beste autobusa 15:15ean aterako da, manifestazio amaieran itzultzeko. Bi autobusak aterako dira geltokitik. *Giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde. Euskal Presoak Euskal Herrira* lelodun manifestazioa 17:00etan abiatuko da La Casillatik.

**Urtezahar eguneko ekintza**

Bilborako –eta Baionarako– dei egin zuten abenduaren 31n San Martin plazan egindako mosaikoarekin. Euskal preso bakoitzeko lagun bat batu ziren mosaikoan.

## Oparitarako garaiz, gomazko erraldoiak

Errege bezperarako iritsi ziren Bergarako Erraldoi Taldeak atera dituen Ximon eta Magdalenaren gomazko erreplikak —plazan egon ziren salgai—.

20 zentimetroko gomazko erraldoiak dira, umeek jolasteko aproposak. Aurrerantzean, konpartsako kideen bitartez edo Interneten, *www.olentzeroa.com* helbidean, eskuratu ahal izango dira, 25 euroren truke biak.



Gomazko erraldoi txiki berriak. | J.I.

## OHARRAK

**BEART ETA SIMON ARRIETA**

Domeka da Beart elkarteak Simon Arrietaren omenez Aroztegi aretoan duen erakusketa ikusteko azken eguna. Ordutegia: gaur, 18:00-20:30; bihar, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta etzi, 12:00-14:00.

**HITZALDIA GAUR ARANZADIN**

Emozioei buruzkoa eta Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzendutakoa izango da. Rafael Cristobalek emango du (18:30).

## Asteleheneko ezohiko bilkuran izendatuko dute alkate Elena Lete

Udalbatzak ezohiko osoko bilkura egingo du astelehenean 19:00etan, bi punturekin. Alkatearen aukeraketa izango da puntuetako bat: azken asteetan behin-behineko alkatde dihardun Elena Lete ofizialki aukeratuko dute. Bilkurako beste puntua izango da Igor Oiarbidek zinegotzi kargua hartzea.

## Errekalde lorategiko horma konpondu egingo du Udalak

Errekalde jauregiko lorategiari jarraipen teknikoa egiten ari zaio azken hilabeteotan Udala; izan ere, horma erortzen ari da pixkanaka. Txosten teknikoa eginda, Sestra enpresari esleitu diote horma egonkortzeko proiektua. Laster hasiko dira lanak, eta kalea itxi egingo dute orduan, segurtasunagatik.

## NIRE USTEZ

AITZIBER PLAZAOLA



# Desioei, bultza!

Urte berria desioz betea hasi dugu oraingoan ere, desio batzuk urte honetan zehar jadanik bete ditugun arren. 28ak libre gara azkenean, bost urtez luzatu den amets gaiztoari amaiera heldu zaio, atzera begiratu eta mendeku hutsa izan dela jakin badakigun arren.

Txapi, Jose Luis eta Bixkai ere gure artean ditugu, azkenean. Beraien etxeratzearekin, gure bihotzaren zati txiki bat berreskuratu dugu, bihotzaren zati handi batek gatibu jarraitzen duen bitartean.

Argiak dira, azkenean, *7 mares* kantak dioen "*que voy a hacer.... con tanto dolor*" horri irribarre bat marraztu, 2016rako desioei gogor eutsi eta tira egiten laguntzen diotenak. Mina itxaropen bilakatzen dutenak.

Bergararrok abenduaren 31n Bergarako plaza argiz bete genuen, etorkizunari irribarre bat marraztu eta horren pisutsua den harriari, 500 lagun inguruk, Bergaratik ere gure bultzada eman genion.

Aterki, kandela, metxero, klera, argazki kamera... gazte, heldu, haur, emakume... guztiak soka berdinetik tiraka, 2016rako desioari ozen deiadarka.

Segi dezagun bada, urrats txiki baina sendoak emanez, argitasunerantz, desioari bultzaka. Bilbon ikusiko dugu elkar!

# Urzulon barna Mongoliaraino, batetik bestera Mendi Astean

## Mendi Film Festivaleko 2014ko irabazle 'Valley uprising' ere emango dute

JULEN IRIONDO | BERGARA

Pol-Pol, Gorla Alpino eta Bergarako Eskaladoriak taldeek antolatuta, ikus-entzunezko ederrekin gozatzeko aukera izango da hamar egunez; ederrak eta, hainbat, sarituak.

Sarituetako bat egitaraua irekitzeko: Oñatiko Aloña Mendi Espeleologia Taldeak egindako *Urzulo* izeneko lanak euskarazko pelikula onenaren saria eskuratu du abenduan Bilbao Mendi Film Festival-en. Hainbat tartetan urak hartutako kobaren 45 urteko esplorazioa –amaitu gabea– jasotzen duen filma gidoi indartsuagatik, iluntasunean grabatzearen zailtasunagatik eta ezkutuko lekuak ezagutarazteagatik saritu zuten.

Jaialdi berean urtebete lehenago sari nagusia irabazitakoa da *Valley uprising* izenekoa. Pelikulak jasotzen ditu hainbat eskalatzaile bohemio belaunaldik Yosemiten bost hamarkadaz egindakoak; eskalada zale ez denari ere gustagarri egingo zaion lan dibertigarria, gai serioez ere badiharduena.

Gainerako ikus-entzunezkoei dagokienez, Pirinioetako hainbat mendi eta hormatan egindako eskalada saioak aurkeztuko ditu Iñigo Andolak; Maite Maiora *Aztarnak* lanarekin etorriko da, eta Fidel Mendia Europako ekialdeko eski jarduerari buruzkoarekin; egitaraua ixteko, Joxe Ramon Agirre *Marron*-ek Mongoliako nomaden bizimodua aurkeztuko du, naturarekiko maitasuna eta zaintza oinarri dituen bizimodua.

Bestalde, mugarrien ibilbiderako –Bonbulu-Aizpurutxo-Elosua– izena eman behar da –astelehenean edo eguenean–, Elosutik autobusez jaisteko.

### EGITARAUA

**URTARRILAK 11-20**

**11** 'Urzulo' (AMET) *.

**12** 'Pioletak dantzan' (Iñigo Andola) *.

**13** 'Aztarnak' (Maite Maiora) *.

**15** Ate irekiak rokodromoan, 19:00etatik 21:00etara.

**16** Mugarrien ibilbidea, 09:00etan frontoian.

**16** 'Valley uprising', 19:00etan Zabalotegin.

**18** 'Europako ekialdean eskia' (Fidel Mendia) *.

**20** 'Mongolia, lurraren maitaleak' (*Marron*) *.

* Irizar jauregian, 19:00etan.

**Iñigo Artzelus** | Bergarako Bertsolari Txapelketan garaile

# "Uste dut jendearengana iritsi ginela, eta horregatik gustura"

J.I. | BERGARA



Iñigo Artzelus. | IÑIGO ARTZELUS

Bi aldiz bigarren egindakoa zen txapelketan, eta oraingoan jausi da txapela. Gari Lopez de Munainekin iritsi zen buruz burukora, eta atzetik geratu ziren Enaitz Alustiza, Asier Arriaran eta Unai Arantzabal, hurrenkera horretan. Giro ederrean jokatu zen finala abenduaren 26an, gaztetxean.

**Txapelarekin pozik?**

Bai. Txapelketa hauek dira giro onekoak, jendea gustura joaten da bertsoak entzutera; bertso bakoitzean, jendea adi. Saio batzuk, azkena-eta, luze joan ziren, baina jendea hantxe; oso giro polita. Horrexegatik jarraitzen dugu, hori da gustatzen zaiguna.

**Ze maila izan zuen finalak?**

Maila polita izan zuen. Ez da Illunbe bat, baina ondo aritu ginen, umore puntuarekin; uste dut jendearengana iritsi ginela, eta gustura.

**Urtean zehar kantatzen duzu?**

Lehen ibiltzen ginen zerbait, baina azken sei edo zazpi urtetan txapelketan bakarrik egiten dut. Bertso eskolara ere gutxi joaten naiz orain, lehen gehiago; familia, lana... Baina gustatzen zaigu eta horregatik eusten diogu honi.

**Besterik esan nahi?**

Txapelketa antolatzen lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi nizkieke. Kopla Barik bertso eskolakoei (gai-jartzaile, epaile...), Txapa Irratiari, Arranori, Kortazarri eta gaztetxeari ere bai.





IÑIGO ZAITEGI

## Reala, 'Mutxi'-ren omenezkoan

Txuri-urdinek irabazi zuten, martitzenean, berriki hildako Bergarako futbol eskolako entrenatzaile Aitor Mujikaren omenezko alebin mailako torneoa. 3-1 irabazi zion Realak Durangoko Culturali finalean. Eibar sailkatu zen hirugarren, eta Bergara laugarren. Elkarren aurka 20 minutuko partiduak jokatu zituzten; maila aparta egon zen.



Gartzia eta Gallastegi. | GOIENA

## Gallastegi eta Gartzia txapeldun Gipuzkoakoan

J.I. | BERGARA

Kadeteen Bigarren Mailako txapela jantzi dute Julen Gallastegik eta Markel Gartziak, Añorgako bikotea 22-7 menderatuta. Nagusietan, berriz, Lehenengo Mailarako txartela lortu dute bergararrek.

Gaur, egubakoitza, hiru partidu izango dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita.

## Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatuko da hilaren 16an Artatse elkartean

Partidak 16:00etan hasiko dira. Izena partidak hasi aurretxoan emango da, eta 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak. Bergarako kanporaketako sariak izango dira: lehena, batutako diruaren erdia; bigarrena, diruaren %30; hirugarrena, txerrikumea eta ezustekoa; eta laugarrena, bi txuleta eta ezustekoa. Bergaran sailkatzen diren bikoteak herrialdeko kanporaketara pasako dira.

## Aratusteetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Urtarrilaren 18an bukatuko da lanak aurkezteko epea. Bergaran bizi diren edo herrian erroldatuta dauden pertsonek parte hartu ahal izango dute. *Aratusteak 2016, Bergara* leloa eraman beharko dute kartelek. Irabazleak 350 euroko saria jasoko du, herriko komertzioetan gastatzeko bonoetan. Herritarrek ere izango dute irabazlearen aukeraketan parte hartzeko modua, *www.bergara.eus* atarian bozkatuz.

## Hilaren 15era arte dute kirol taldeek iazko diru laguntzak eskatzeko

Hurrengo egubakoitzean amaituko da kirol taldeek dokumentazioa aurkezteko epea, Udalaren diru laguntza jaso ahal izateko: urteko diru kitapenak, fakturak... Hilaren 15etik aurrera ez dute onartuko joan zen denboraldiarekin lotutako ziurtagiririk.

Bestetik, hilaren 27an kirol elkarteekin bilera egingo dute Agorrosinen; landuko dituzten gaiak: diru laguntzak; aurtengo ekintza berezien programa; Kirola Kalera; uda kanpaina; eta kirol elkarte bateratuaren proiektua.

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Kale garbiketa zerbitzua Udalak hartuko du urritik

ELAk protesta adierazteko kale agerraldia deitu du hurrengo eguenerako

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Abenduaren 17ko osoko bilkuran eman zuen aditzera alkateak egun FCCren esku dagoen kale garbiketa zerbitzua Udalak kudeatuko duela urritik aurrera. Hurrengo egunean erabaki horren aurkako pankartak agertu ziren herrian, eta, egun, lan hori egiten duten hamar langileetako bederatziren izenak jasotzen dituen orriak ere atera ditu ELAk Gabonetan. Orain, elkarretaratzea deitu dute hilaren 14rako. Foruen plazan izango da, 18:30ean. "Gu ez gara sartzen erabaki politiko horretan, baina langileak babestuko eta defendatuko ditugu. Subrogazioa eskatzen dugu", dio ELA sindikatuko Ane Romerok.

Romeroren esanetan, ekainean izan zuten erabaki horren berri eta alkatearekin behin baino gehiagotan berba egin dute, "baina, abenduko bilerara arte, beti subrogazioari begira. Orduan jakin genuen plaza publikoak atera gura dituztela".



Langileak protesta kartelarekin abenduaren 29an. | MARIAN GONZALEZ

**Hamar lanpostu**

Mikel Biain alkatearen esanetan, zerbitzua Udalaren esku egonda "eraginkorragoa" izango da. "Baliabide materialak eta pertsonalak gehitu egingo dira eta emango den zerbitzua hobea izango da", zehaztu du alkateak. Lanpostuei dagokienez, adierazi du lan-jardun osoko hamar lanpostu eskainiko dituela Udalak, eta horietako bat urritasuna duen pertsona batendako izango da. "Edonor aurkeztu ahal izango da izaera laborala izango duten lanpostu horietara, baita egungo kale garbitzaileak ere. Gainera, Udala prest dago malgutasunez jokatzeko, betebeharrak zehazteko orduan, esaterako", azaldu du Biainek.

Alderdi jeltzalearen ustez, berriz, zerbitzu hori Udalaren esku egoteak gastua areagotu egingo du. "Gastu arruntean jaitsiera egongo da, bai, baina pertsonal sailekoa handitu egingo da. Atal batetik bestera pasako da gastua", adierazi zuen jeltzaleen udal bozeramaileak, Miren Elgarrestak, abenduko osoko bilkuran. Mikel Biainen ustez, ordea, ez du gastua handituko. "Kapitulu aldaketa ekarriko du, baina gastua ez da handiagoa izango. Kostua, gainera, antzerakoa izango da".

FCCrekin kontratua etetea eta zerbitzua Udalaren esku uzteko erabakia urtarrileko osoko bilkuran hartuko dute.

## Goizez zein arratsaldez aterako dira autobusak manifestaziorako

Bihar Bilbon egingo duten presoen eskubideen aldeko manifestaziorako sei autobus beteta zituen Oñatiko Sarek eguenerako. Goizekoak 10:00etan aterako dira herritik eta arratsaldekoak 15:00etan. *Mugi daitezen harriak lelopean* egingo dira manifestazioak Bilbon eta Baionan. 17:00etan abiatuko dira hiriburu bietan. Sarek deitu ditu.

## Gurutze Mujikaren erakusketa zabalduko dute kultura etxean

Gurutze Mujika artista aretxabaletarraren pintura erakusketa zabalduko dute datorren astean kultura etxean. Natura da bere gai kuttunena eta olioan egindako paisaiak dira erakusketara eroango dituen margoak. Urtarrilaren 9tik 24ra egongo da zabalik erakusketa eta egunero egongo da ikusteko aukera, 18:00etatik 20:00etara.

# Kabalgata antolatzen jarraitu gura du Txandak

Dendarien elkarteak antolatu du aurten, lehen aldiz, eta pozik daude herritarren erantzunarekin

**O.E.** | OÑATI

Aurten Txanda elkarteak antolatu du erregе magoen kabalgata eta esperientzia eta balorazioa oso ona izan dela adierazi du presidenteak, Juan Carlos Aranburuk. "Zaldi gainean etorri ordez karrozetan etorri dira hiru errege magoak aurten. Argi askorekin, musika ere bai. Azken bi urteetan, gainera, ez da egon, eta jendea gustura egon da kalean. Eguraldi ona egin du, gainera. Herritar asko etorri zaigu zoriontzera eta oso pozik gaude", zehaztu du Aranburuk.

Bidaurretan abiatu zen kabalgata eta Kale Barriatik behera Kale Zaharrera joan ziren, eta Aita Madina kaletik bueltan iritsi ziren Foruen plazara. Udaletxeko balkoitik egin zuten agurra hiru hizkuntzatan eta ondoren osoko bilkuren aretoan eseri ziren haurrei harrera egiteko. Ilara handiak sortu ziren aretora igotzeko; bi orduz egon ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar umeei harrera egiten.


Gaspar errege magoa Foruen plazara iristen. | O.E.

Lehenengoak izan duen harrera ikusita, kabalgatak antolatzen jarraitu gura du Txandak. "Lan asko egin dugu aurretik; karrozak, esaterako, geuk egin ditugu. Oso urduri egon gara, baina emaitza oso ona izan da. Esperientzia honek lagunduko digu hurrengoak antolatzen", dio Aranburuk.

## Iker Martinezek bakarkako kontzertua egingo du etzi

Iker Martinez musikari oñatiarrak bakarkako lehen kontzertua egingo du domekan, Pako tabernan, 19:30ean. Iker Martinez Latzen, Potemkin eta Amonal taldeetan gitarra jotzen ibilia da, eta momentu honetan Lenao taldeko kidea da. Lenao taldean, gitarra jotzeaz gain, abeslari lanak ere egiten ditu. Bertsio kontzertua izango da.

## Ordubete luzatuko dituzte aurtengo odol ateratzeak

Aurtengo odol ateratzeak 17:30etik 20:30era izango dira; ordu bat luzatu dute. Orain arte ordu ofiziala 19:30ak arte izan arren, beti luzatu egiten zen, eta hori ikusita erabaki dute 20:30ak arte egotea. Tokia, baina, betikoa izango da, Txantxiku ikastolako aretoa.

2016an hamar odol ateratze egingo dituzte. Lehena urtarrilaren 15ean izango da.

# Irrien Lagunak datoz etzi gaztetxera

**O.E.** | OÑATI

Irrien Lagunak taldeko kideak Antixena gaztetxera etorriko dira domekan, 17:00etan. Aurreko hiru urtetan egin duten bezala, umeekin abesteko eta dantza egiteko gogoz etorriko dira. Sarrerak herriko gozoki dendatan daude salgai, Mizken eta Kikun.

Gaztetxean urtarrilerako antolatu duten ekintzetako bat izango da domekako ikuskizun hori. Autoformazio eta filosofia saio bana ere antolatu dituzte eta baita bideo emanaldi bat eta kontzertuak ere. Esaterako, *Euskal Herriko ABD-ak* eskainiko dute.


Joan den urtean egindako ikuskizuna. | GOIENA

**Irazoki**

Zuzenean joko duten taldeen artean daude, besteak beste, La Otra, El Exterminio de la Raza del Mono, Las Tuerkas, Oldakor, Sermond´s eta Voltaia. Baita Joseba Irazoki gitarra jotzaileak ere. Gaur, egubakoitza, urtarrilak 8, joko dute Joseba Irazokik eta Lagunak. Kontzertua 22:00etan izango da.

## Bihar da Inauterietako hurrengo entsegua

**O.E.** | OÑATI

Otsailaren 6an ospatuko dira aurtengo Aratusteak eta Oñatiko Inauteriak taldea dagoeneko lanean hasita dago egun horretako ikuskizuna eta ospakizuna prestatzen. Astean birritan egiten dituzte entseguak: eguaztenetan 20:00etan eta zapatuetan 12:00etan. Oñatz dantza taldeak Errekalden duen lokalean dira entseguak. Hurrengoa, beraz, bihar, urtarrilak 9, izango da.

Hamasei urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute kalez kale egingo dute ikuskizunean.

## OHARRAK

**TXIKI TXOKON**

Matrikulazio epea zabalik izango dute Txiki Txokon urtarrilaren 11tik 15era.

**SANTA KLARA**

Santa Klara ermandadeak urtean hil direnen aldeko meza egingo du domekan, 12:30ean, Bidaurretan. Ondoren, urteko batzarra egingo du.

# Mundukideren proiektuak protagonista Arkupen

'Batu taupadara' erakusketa eta 'Kapulana bat zintzilik' emanaldia egunotan

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Hamabost urte bete dituela aitzakia hartuta orain arte egindako lanaren, filosofiaren eta emaitzen berri ematen dabil Mundukide GKE, eta urtarrilean Arkupe kultura etxeko protagonista izango da. *Batu taupadara* argazki erakusketa zabaldu dute astean urtarrilaren 17ra bitartean, eta eguaztenean, hilaren 13an, *Kapulana bat zintzilik* emanaldia eskainiko du Miren Amuriza bertsolariak, 19:00etan.


Debagoiendarrak Mozambiken, proiektuaren berri jasotzen. | MUNDUKIDE

### Bazkide berriak helburu

Mozambiken, Brasilen eta Kuban martxan dituen zazpi programen gaineko argibideak batzen dituen argazki erakusketa ekarri du Mundukidek Arkupera. "Asmoa da orain arte egindako lanaren berri ematea eta Mundukide zer den, dituen balioak, eta gizartea eraldatzeko duen helburua ezagutzera ematea", dio Josu Urrutiak, Mundukideko zuzendariak. Eta horren guztiaren berri emanda bazkide gehiago egin gura dituzte: "Proiektu gehiago martxan jarri ahal izateko aukera eta beharra dagoelako".

### Bertsoak eta ipuinak

Erakusketa hori bertsoekin eta ipuinekin jantziko du Amuriza bertsolariak eguaztenean, 19:00etan, *Kapulana bat zintzilik* emanaldiarekin. Kapulanak dira Mozambikeko emakumeen oihal koloretsuak, hainbat erabilera dauzkatenak: umeei lepoan eutsi, jatekoa bildu eta etxeak apaindu, besteak beste. Emanaldian kapulana bat zabaldu eta han gordetako kantu, kontu eta irudiak aterako dituzte: "Mozambikeko lurrazalaren historiatik hasita, emakumeen eskuetako azal zimurrak irakurtzeraino egingo dugu bidaia", diote elkarteko kideek. Bien bitartean, kooperazioaren, nekazaritzaren, haurtzaroaren eta hizkuntzaren gainean jardungo du ia ordubetez Amurizak, Eider Eibarren ilustrazioak lagun dituela.

# Hiri hondakinen kudeaketa sistema hautatzeko botoa eman daiteke eguenetik

Galdeketa izango da urtarrilaren 24an, domeka, Kurtzebarri eskolan

**M.A.** | ARETXABALETA

Azaroan egindako osoko bilkuran erabakitako moduan, urtarrilaren 24an, domeka, izango dute aretxabaletarrek hiri hondakinen kudeaketa sistema hautatzeko aukera. 18 urtetik gorako 5.693 herritar daude deituta bozkatzera. Hautetsontziak Kurtzebarri eskolan jarriko dituzte, lau mahai, eta ordutegia izango da 09:00etatik 20:00etara.

Udalak, gainera, aurretik bozkatzeko aukera eskainiko du; urtarrilaren 14tik 21era bitartean, hain zuzen ere. Udaletxeko idazkaritzara jo beharko da horretarako, eta ordutegia honako hau izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

### Bi boto-orri

Horren guztiaren gaineko argibideen esku-orria gertatu du Udalak, eta etxe guztietara helaraziko du datozen egunotan. Boto-orriak ere banatuko dituzte orduan.

Galdera bakarrari erantzungo diote herritarrek; honako honi: *Aretxabaletako udalerrian, zein uste duzu dela hondakinak selektiboki biltzeko sistemarik egokiena?* Proposatutako sistema bakoitzeko boto-orri bana izango dute hautatzeko; bata atez atekoarentzat (gaur egungo bilketa) eta bestea bosgarren edukiontziarentzat (edukiontzi bidez gaikako bilketa, organikoarenak eta errefusarenak txipa dutela).

Udalak botoa ematera gonbidatu ditu aretxabaletarrak, eta zera esan du: "Guztion artean erabakitako sistema da udalerri osoan ezarriko duguna".


FELIS BELTRAN DE HEREDIA

## "Harriak mugitzeko" deiarekin bat

Sarek egindako *Mugi daitezen harriak* deialdiarekin bat egin dute aretxabaletarrek ere, eta ia 200 lagun joan ziren abenduaren 31n Kurtzebarrira. Bihar, beste herritar mordoa joango da Bilbon egingo den manifestaziora; 15:30ean irtengo da autobusa Azbetik.

NIRE USTEZ


**MAITE FRAILE**

## Aske izan, maitatzeko!

Maitasuna, bizitzaren erdigune da, ezaugarri unibertsala, gizaki guztiak gara maitekorrak eta maitagarriak. Gizarteak ez du ezaugarri hau asmatu baina bai ordea mugatu; nor maitatu dezakezun, nor ez, zenbat denboran zehar, ze modutan… eta abar inposatuz. Denboran zehar, maitasunaren kontzeptuak bilakaera izan du, garaiko testuinguru soziopolitikoaren ispilua izanik.

Laranja erdi izateko hezi gaituzte, beste gizaki baten osagarri izan behar garela bizitzan aurre egiteko eta honek, ez dauka zentzurik, bakarrik jaio eta hilko garen bezala bizi behar baikara. Gizabanakoari dagozkion ezaugarri guztiak generoaren arabera sakabanatu dira, mutilei; indarra, ekimena, adimena eta boterea emanez eta neskei aldiz, zaintza eta emozioak egotziz. Tartean, bikote eredu harreman honetan, betierekotasuna, heterosexualitatea, esklusibitatea, menpekotasuna eta harremanarekiko jabetza ideiak ere sustatu direlarik. Maitasun erromantikoaren eredua da hau, mendebaldeko gizartean inposatu dena.

Maitasuna, askatasuna da, beraz, aukera askekoa izan behar da. Norberak ikertu behar du bere nortasunaren eraikuntzarako aberasgarria den bidea; monogamia edo poligamia zein poliandria, heterosexualitatea edo homosexualitatea… Maitasun erromantikoa politikoa da, ez dago bidezkoa ez den maitasunik, maitatzeko era ezberdinak daude.

**"Laranja erdi izateko hezi gaituzte"**

### Aratusteetako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea eguenean, urtarrilak 14, bukatuko da

Lehiaketa bidez aukeratuko du Udalak, beste behin, Aratusteak iragarriko dituen kartela. Lanak Arkupera eroan behar dira urtarrilaren 14a baino lehen, eta irabazleak 200 euro jasoko ditu. Edonork parte hartu ahal izango du eta kartelak bi baldintza bete beharko ditu: 50x70 zentimetrokoa izatea (digitalean, DIN A-3) eta testua honako hau izatea: *Aratusteak, Aretxabaleta 2016*. Teknika, ostera, librea da. Epaimahaiak urtarrilaren 18an emango du erabakiaren berri.




M.A.

## Erregeekin, agur Gabonei

Errege magoen bisitarekin agurtu dituzte Gabonak herritarrek. Ohi legez, gozokiz beteta etorri ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Aurretik, baina, Bizarzuri, eta Olentzero eta Mari Domingi ere izan ziren herrian, eta neska–mutikoek kantuan jardun zuten herriko kaleetan. Hain zuzen, abenduaren 24an 100 urte bete zituen Angeles Molina zoriondu zuten ume horiek GSR zaharren egoitzan.

ESKORIATZA

# Axtrokiak aldatzeko azken eguna urtarrilaren 11 izango da

## Behin betiko onartu dira 2016ko ordenantza fiskalak erreklamazio barik

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Astelehena izango da axtrokiak aldatzeko azken eguna; izan ere, 2016ko urtarrilaren 11tik aurrera Udalak jaulkitako axtrokiak zirkulaziotik erretiratuko dira. "Bi urteren bueltan Udalak ez du atzematen axtrokiak erabilita etekin nabarmenik lortu denik, moneta lokalak ez baitu esperotakoa beste sustatzen tokiko kontsumoa, eta, horretaz gain, kontabilitatea axtrokitan eta eurotan egin beharrak lan karga handia dakarrelako. Nabarmentzeko lana egin den arren, emaitzak ez dira hain onak izan", adierazi dute Ibarraunditik.

Horren eraginez, hobariak ez dira axtrokitan ordainduko azken urteotan moduan; dirutan ordainduko dira. 2015ean indarrean egon den ordenantza fiskalean ez ziren hainbat hobari aurreikusten, eta horiek axtrokitan emandako diru laguntza gisa arautu dira. 2016rako onartutako honetan, berriz, hobari horiek berreskuratu egiten dira. Udal talde berriak axtrokitan emango den diru laguntza deialdirik ez du egingo eta kopuru horiek hobari gisa arautuko ditu.

### Ordenantza fiskalak onartuta

Jendaurrean egoteko arauzko epea igarota inolako alegazio edo erreklamaziorik jarri gabe, behin betiko onartu dira, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ordenantza fiskalak, tipoak, kuotak eta tarifak eta horiei egindako aldaketak.

Ez dira iaztik hona igoko, orokorrean, ura izan ezik. Uraren tasa %5 igoko da, Ur Partzuergoak proposatuta, eta etxe hutsen ondasun higiezinenen zerga erregargua, bestalde, kendu egingo da.

### Salbuespen eta hobari berriak

Hobariak eskatzeko otsailaren 26a izango da azken eguna eta jaso ahal izateko idatzizko eskaera eta dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko dira bi baldintza hauek betez: Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea eta, pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean.

Hiri-kontribuzioan %50eko hobaria izango da familia ugarientzat, eta baita energia berriztagarriak jartzeagatik ere. Ibilgailuei dagokienez, hobari berriak onartu dira 50 urtetik gorako ibilgailuentzat, %100, familia ugarientzat %15-%50 artekoak, 120 g/km $CO_2$ baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuentzat eta ibilgailu elektrikoentzat %100. Hondakinetan, %25eko hobaria 11 tarifan auzo-konposta edo konpost komunitarioa egiteagatik.

ESKORIATZA

# Errege magoei harrera bikaina egin diete herriko gaztetxoek

**I.B** | ESKORIATZA

Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoak Eskoriatzan ere izan dira. Urtero moduan, gozokiak banatuz kabalgata egin zen, eta, ibilbidea amaitzean, umeen eskutitzak jaso zituzten herriko plazan.

Antortxeroak, bandako kideak, erromatarrak... izan ziren kabalgatan, eta, kiroldegitik abiatuta, Intxaurtxueta-Gaztañadui-Arbiñoste-Arana-herriko plaza bidea egin zuten. Erdigunean eta plazan batu ziren herritar gehienak haiek ikusteko, eta gaztetxoek beraiekin egoteko aukera izan zuten, beraien gutunak eman, eta zein ondo portatu diren esateko.



Errege magoa umearekin. | I.B

ESKORIATZA

# Aldaype ehiza elkarteak postu garbiketa egin du lagun artean

**I.B** | ESKORIATZA

Aldaype ehiza elkarteak abenduaren 28rako ehiza postuen garbiketa egiteko dei egin zuen, urtero egin ohi duten moduan, eta, guztira, 13 boluntario elkartu ziren ehiza postu eta inguruak garbitzeko.

14:30etan batuta, bederatzi ehiztarik osatutako talde bat Marin-Alabita-Abeta-Tortorbil eremu inguruetan dauden ehiza postuak garbitzeaz arduratu zen, eta beste lau ehiztarik osatutako taldea Aizkorri-Aratz parkeko postuena. Eguna amaitzeko, berriz, merienda eder bat egin zuten batutakoek.

### 10 zaku zabor jasota

Aldaypeko zuzendaritza batzordeak adierazi du egindako lana positiboa izan dela; izan ere, batu ziren 13 lagunak ez ziren guztiak Aldaype elkartekoak, eta elkartetik kanpo daudenen laguntza ere eskertzekoa dela adierazi dute elkartetik.

Hala, hurrengo urteei begira ehiza postuen erabiltzaileak kontzientziatu nahi dituzte Aldaypetik.

ESKORIATZA



IMANOL BELOKI

# Mundukideren hitzaldia parrokiako koruak itxi du

Mundukide gobernuz kanpoko erakundea Mozambiken urteetan egiten ari den lanaren gaineko hitzaldia egin zuen Beñat Artzadunek Zaldibar antzokian astelehenean. Ondoren, Jesus Iriak zuzenduta, parrokiako koruak zortzi kantu abestu zituen, Juan Karlos Irizarren piano doinuekin lagunduta.

ESKORIATZA

## 'Yugo eta Lala' haurrentzako animaziozko filmarekin hasiko da urtea Zaldibar antzokian

Urtarrilaren 10ean, domekan, *Yugo eta Lala* animaziozko filma izango dute haurrek ikusgai Zaldibar antzokian, 17:00etan. Sarrera bi euro da eta filmak 75 minutu irauten du. Yugo gazte ausarta da, eta, aitarekin eztabaidatu ostean, etxetik ihes egin eta animaliak bizi diren lainoetako mundu fantastiko batera abiatuko da. Bertan, Lala eta osaba Hartza lagun zaharrekin elkartuko da, eta arrisku ugariri aurre egin beharko diete.

LEINTZ GATZAGA

# 200 lagun pasa 'Apodaka'-ren estreinaldian

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Ikusmin handia eragin zuen Antonio Fernandez *Apodaka*-ren irudiekin osatutako ikus-entzunezkoaren estreinaldiak, urte amaieran parrokian egin zutenak. "Oso ondo joan zen aurkezpena, gutxi gorabehera 200 lagun baino gehiago egon zirela kontatu genuen", esan du Ander Larrañagak, dokumentalaren egileetako batek. Eta 200 lagun pasa horien artean, euskal zinemagintzaren erreferenteetako bat den Asier Altuna *Kixi* bergarar zuzendaria ere bertan zen.

Edozein modutan, gatzagarrak eurak izan ziren, gehienbat, parrokia bete zutenak; *Apodaka*-ren ordu eta erdiko irudiekin osatutako 11 minutuko ikus-entzunezkoan euretako asko –apur bat gaztetuta, hori bai– azaltzen direla ikusi ahal izan zuten-eta bertatik bertara, eta baita udalerriko irudi esanguratsuak ere: udaletxea desmuntatu zenekoa, lehenagoko plaza inguruak... 40 bat urte atzera egin zuten.



'Kixi' zinema-zuzendaria berbetan. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA



ANDER LARRAÑAGA

LEINTZ GATZAGA

# Ohitura zaharrari ondo eutsita

Trikitiaren doinuekin lagunduta, neska-mutiko eta guraso talde ederra baserriz baserri ibili zen, beste urte batez, abenduaren 24n Gabon giroa eta, jakina, udalerriko egutegia partitzen. Azken horren harira, oraindik badira ale batzuk Labidean eta udaletxean, norbaitek baten bat gurako balu bertaratu eta eskuratzeko.


Olentzero eta Mari Domingiren etorrera kantuan ospatu zuten herritarrek. | IKER AIZKORBE

# Irribarrez hasi eta bukatu dituzte Gabonak gaztetxoek

## Azken opor egunak disfrutatzeko asmoz, astelehenean haurrendako jolas parkeak guraso eta ume ugari batu zituen eskolako patioan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Puzgarriak, zezen mekanikoa, kotxe lasterketak, arku tiraketa proba... herriko gaztetxoen gozamenerako denetariko jolasak batu ziren eskolako patioan urtarrilaren 4an. Antzuolako Gabonetako haur jolas parkeak, urtero, adin tarte zabal batendako dibertsioa eta jolasak eskaintzen ditu; eta aurtengoan ere ez du hutsik egin eta gustura ibili ziren goiz eta arratsaldez Antzuolako neska-mutilak gurasoen begiradapean.

Gustuko jolasen artean puzgarriak nagusi diren arren, ilara luzeak eduki zituen zezen mekanikoak. Ausartenen artean nerabeak: eurak igo ziren-eta zezen mekanikoaren zama gainera; baina txikitxoren bat edo beste ere animatu zen zezenaren bizkar gainean jira biraka irautera.

**Olentzero eta Mari Domingi**

Harrera beroa eta ezin hobea egin zieten antzuolarrek Olentzerori eta Mari Domingiri abenduaren 24an. Kantuan eta musikaren laguntzarekin kalejiran hartu zituzten herritarrek. Gaztetxo eta txikitxoenen desioak eta nahiak betetzera etorri ziren San Josepetik Herriko Plazara.


Gabonetako jolas parkean puzgarriak izan ziren protagonista. | MAIDER ARREGI



**INAR ETA IMANOL**
ANTZUOLA

"Oso ondo pasatzen dugu lagunekin batera jolas parkean. Denak probatu ditugu dagoeneko. Zezen mekanikoan ere ibili gara; baina ez dugu askorik aguantatu bizkar gainean, kar-kar. Urtero etortzen gara".



**KEREN ETA MAIALEN**
ANTZUOLA

"Den-dena gustatu zaigu eta ia dena probatu dugu; txikienendako diren jolasak izan ezik. Zortzi urte ditugu eta aukera dugun jolas orotan ibili gara. Oporrak bukatu diren arren, pozik gaude eskolara berriro bueltatzeko".

## Urteari ongietorria Arrolan

KOMUNITATEA GOIENA |
ARROLA MENDI TALDEA | ANTZUOLA

Ohitura jarraituaz urtarrilaren 1ean Arrolara igo eta Argileku txabolan salda, txistorra eta ardoa izan da. Aurtengo argazkiak ikusgai dituzue Goienako Komunitatean.


JABI ETXANIZ

### OHARRAK

**AUTODEFENTSA IKASTAROA**
Urtarrilaren 9an eta 16an autodefentsa ikastaroa egingo da Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

**EMILIO OLABARRIA**
Parlamentari jeltzaleak hitzaldia eskainiko du urtarrilaren 16an, eguena, Olaranen, 18:30ean.

**AUZOKO EKIMENA**
Eguaztenero, Olaranen, auzokideak eta auzotarrak 17:30ean bilduko dira.

### NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI



## Berdintasuna zela ba?

Noiztik gabitzen emakumiok berdintasuna dala eta ez dala bueltaka, ezta? Danok igualak garela, etab, etab. Baina haber: zela izango gara igualak emakumion artian be bakoitza mundu bat da eta! Beste gauza bat da eskubide igualak aldarrikatzia, emakume izatearren (lantokixan, esaterako) haurdunaldixan eta holako egoera ezberdinetan gizonekoen eskubideen azpittik bizi bihar izeten garalako, bape justua benetan.

Baina berdinak garala esatia... inundik inora, eta eskerrak, gainera, bestela pentzau zelako mundua sortuko giñuken. Emakumiok gauza askotarako kapazitauta gare, eta gizonak beste askotarako, hola ekilibrio bat sortuaz.

Ze pasatzen da askotan? Alde batek bestiai norbere aldera egin deixen exijitzen doula, eta hor hasten dia deskonpensaziñuak.

Hala be, ni emakumia izanik, zela ez ba daukogun meritua aittatu! Espezie "sobrenatural" bat garala argi dago: zenbat kapazidade dauzkun dana aurrera etaratzeko: umiak, etxia, lana, familixia, eta hau eta bestia eta handikaldekua...

Marabillak egitten dittugu egun bukaerarako, guk bai merituа! Beraz, zorionak emakume guztioi eta baloratzen gaittuzuen gizonezko guztioi! Aupa, gu!

**"Zorionak emakumeei eta baloratzen gaittuenei"**

### Antzuolako EH Bilduk balorazioa egiteko batzar irekia egingo du herritarrendako urtarrilean

Herritarrei EH Bilduk Olaranen urtarrilean (eguna zehazteke) egingo den batzarrean parte hartzeko dei egin diete. "Eskerrak eman nahi dizkiegu azken hauteskundeetan babesa adierazi diguten herritarrei; antzuolarrei jakinarazi nahi diegu aurrerantzean ere eguneroko inurri lanean jarraituko dugula gizarte justuagodun Euskal Herri independentea lortzeko bidean".

### Antzuolako 8 Miliak lasterketan parte hartzeko izena eman daiteke gaurtik aurrera

Otsailaren 14an egingo da aurtengo Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Izen-ematea gaur zabalduko da 20:30ean *herrikrosa.eus* webgunean. Bestalde, gaur 14:00etan zozketatuko dira doako hamar izen-emate. Irabazleak telefonoz eta Facebooken jakinaraziko dira. Interesa dutenek mezua bidali behar dute *antzuolako8m@gmail.com* helbidera izen-abizenekin.

### Euskal Herriko VIII. mus txapelketa abian da eta Antzuolan gaur jokatuko da lehen kanporaketa

Mox tabernan gaur, urtarrilak 8, ekingo zaio Euskal Herriko mus txapelketaren baitan egingo den lehen herriko kanporaketari, 22:15ean. Parte hartuko duten bikoteek 20 euro ordaindu behar dute. Antzuolako finala urtarrilaren 24an egingo da. Final nagusia, aldiz, Urdiñarben, Zuberoan, jokatuko da martxoaren 5ean. Eta zazpi herrialdetako finalak otsailaren 20an egingo dira.


EZ DUT MOZTUKO BIZARRA

## Bilbora joateko autobusa

Bilbon zapatuan egingo den presoen eskubideen aldeko manifestaziora joateko autobusa 15:30ean irtengo da autobus geltokitik. *Ez dut moztuko bizarra* taldeak argazkia atera du babesa adierazteko.

# Udaletxean eskura daiteke autobus bidaietan deskontuak izateko txartela

## Arabako garraio publikoan %20 aurreztu daiteke modu horretan; egiteko, 3 euro ordaindu beharko da

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Arabako garraio publikoetan deskontua izateko Bat txartela Aramaioko udaletxean eskura daiteke. Horretarako, udal bulegoetara joan beharko da, eta 3 euro ordaindu.

Gasteizko Euskotren bulegoetan banatzen dute Bat txartela; baina, Gasteizera joatea herritar askorendako erosoa ez dela kontuan hartuta, Udalak erabaki du bere gain hartzea lan hori.



Bat txartel arrunta. | EUSKOTREN

### Bat txartel motak

Bat txartel mota ezberdinak daude. Aramaioko Udalak banatuko dituenak orokorrak izango dira. Horrek dituen abantailak dira: Arabako garraio publikoan %20ko deskontua; eta, Gasteizko hiribusetan eta Gasteizko eta Bilboko tranbietan ia %50eko deskontua.

Txartelak eskuratzeko 3 euro ordaindu beharko dira, eta ondoren Kutxabank-eko kutxazainetan kargatu beharko da –ez da zertan Kutxabank-eko bezeroa izan behar horretarako.

### Zer den Bat txartela

Bai autobusa eta baita tranbia ere erabiltzeko aukera eskaintzen duen txartela da Bat. Txartel honen hainbat mota daude: orokorra, pertsonalizatua, 30D titulua eta Bat berezia. Bat txartel orokorra pertsona batek baino gehiagok erabil dezake. Txanpon txartel gisa erabil daiteke, eta bidaia bakoitzean indarrean dagoen tarifa kentzen da. Tranbia geltokietako makina automatikoetan karga daitezke eta Kutxabank-eko kutxazainetan ere kargatu daitezke, ez da beharrezkoa erabiltzaileak finantza erakunde horretan konturik edukitzea. Bat txartela edonork eska dezake.

Txartela galdu edo lapurtuz gero ez dute berritzen, txartela ez dagoelako pertsonalizatua. Hala ere, tranbiaren informazio bulegoan erregistratuta egonez gero saldoa beste txartel batera pasa daiteke.

# Otsaila eta abuztua bitartean bainuetxera joan nahi duten pentsiodunek urtarrilaren 11ra arte egin dezakete eskaera

## Eskaerak oinarrizko gizarte zerbitzuaren udaletxeko bulegoan egin beharko dira

**A.E.** | ARAMAIO

Gizarte segurantzako pentsiodunei zuzenduta bainuetxe programa jarri dute abian. Eskaerak udaletxean egin beharko dira, oinarrizko gizarte zerbitzuaren bulegoan. Bete beharreko baldintzak dira: erretiratuek eta ezintasunen bat dutenek baldintzarik gabe joateko aukera dute; alarguntza dela-eta pentsiodun direnek 55 urte edo gehiago izan beharko dute; bestelakoengatik pentsiodun direnek, aldiz, 60 urtetik gora izan beharko dute.

### Eskaerak egiteko epea

Otsaila eta abuztua bitartean joan nahi dutenek 2016ko urtarrilaren 11ra arte izango dute eskaria egiteko aukera; irailetik abendura bitartean joan nahi dutenek, aldiz, maiatzaren 11ra arte izango dute epea.

Eskariak egiteko aurkeztu beharreko agiriak dira: nortasun agiriaren fotokopia; hilean jasotzen duten pentsioaren zenbatekoa; gizarte-segurantzako afiliatu zenbakia; eskabide orria eta osasun egoeraren adierazpena.

### Ezintasuna dutenak

Ezintasuna duten pertsonentzako turismo eta termalismo programa ere abian da. Eskaerak udaletxean egin beharko dira urtarrila eta martxoa bitartean.

# Bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko txartelak erosteko aukera dago

**A.E.** | ARAMAIO

Sarek deituta *Mugi daitezen harriak* lelopean manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, Bilbon eta Baionan. Aramaiotik autobusa jarri dute Bilbora joateko: 10 eurotan daude txartelak salgai Añai tabernan. Gaur, barikua, izango da txartelak eskuratzeko azkeneko eguna.

### Autobusa 15:00etan

Autobusa biribilgunetik irtengo da, bihar, 15:00etan. Manifestazioaren ondoren hartuko dute itzulerako autobusa, Bilbon.

Euskal presoen etxeratzea aldarrikatzeko eta haien eskubideen alde deitutako manifestazioak izango dira Bilbon eta Baionan egingo dituztenak.

## Plan orokorraren lehen aldaketa ikusgai otsailaren 10era arte

2014ko martxoaren 5ean Aramaioko udalbatzak hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jarri dute Hiri Antolamenduko plan orokorraren lehen aldaketa zehatza. 2016ko otsailaren 10era arte egongo da ikusgai, eta herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izango dute espedienteak jendaurrean dauden bitartean. Interesatuek udal bulegoetan eskura ditzakete administrazio espedientea eta dokumentazio teknikoa. Aldaketa horri eragiten dion ingurumen ebaluazioa estrategikoaren dokumentua ere jendaurrean jarri dute –Udalbatzak 2015eko azaroaren 26an onartutakoa–.

## Martitzenean harrapatu zuten gizonezkoa onera doa Donostia ospitalean

Zazpi saihets-hezur apurtuta eta buruan kolpea du martitzenean auto batek harrapatu zuen 67 urteko gizonezkoak. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, istripua 07:40an gertatu zen, Aramaioko erdigunean, Aita Gabirel Jauregi kalean. Oinezkoa zebra-bidea pasatzen zihoan eta auto batek harrapatu egin zuen oraindik argitzeke dauden arrazoiengatik. Lehenengo, Arrasateko ospitalera eraman zuten, eta gizonezkoaren egoera ikusita handik Donostiara eramatea erabaki zuten. Gizonezkoa arriskutik kanpo dagoela, lasai dagoela eta bere onera doala azaldu du Cristina Etxenausia zinegotziak.

## Santa eskean irteteko entseguak egingo dituzte eguenetan

Urtarrilaren 14an, 21ean eta 28an santa eskean irteteko entseguak egingo dituzte. Entseguak kultura etxean izango dira, 19:00etan. Santa eskean, aldiz, urtarrilaren 30ean, zapatua, irtengo dira. Bertso eskolak, Trikikalejira trikiti elkarteak, Udalak eta Papargorri abesbatzak antolatu dute ekimena. Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte Euskal Herrian hain ezaguna den Santa Ageda eguneko koplak kantatzera; izan ere, Santa eske herrikoia egitea da asmoa. "Pintto eta koadrillie ederto ibili zien igez; aurten be badatoz, eta zu?", diote antolatzaileek.


CONSUELO ERRASTI

## Gabonetako kontzertua

Ohikoa den moduan, Gabonen atarian kontzertua eskaini zuen Bizente Goikoetxea abesbatzak. San Martin elizan egin zuten emanaldia. Emanaldi ederra izan zen, eta Aramaioko abesbatzaren ahots goxoez gozatzeko aukera izan zuten hara joandakoek. Beste behin, Bizente Goikoetxea abesbatzaren Gabon abestiekin egin diete ongietorria Gabonei aramaioarrek.

# Inbertsioak lehenestera behartu duen udal aurrekontua aurten

▶ Aparejadore ohiaren auziak nabarmen baldintzatuko du udal gastua

▶ Iazkoarekin alderatuta 100.000 euro inguru egin du behera aurrekontuak

M. ALTUBE /L. ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Udalak 1.623.871,93 euroko aurrekontua onartu du 2016rako. EH Bilduko lau botorekin onartu du udalbatzak agintaldiko lehen aurrekontua. Gu Geu Elgetako bi zinegotzi abstenitu egin dira. Gu Geu Elgetako zinegotzi Mikel Larreak eskatu du "beste formularen" bat topatzeko aparejadorearen auziak hainbeste ez dezan "baldintzatu" aurrekontua. Alkateak, ostera, erantzun dio ez dagoela "formula magikorik".

Aurreko aurrekontua —2014ko abenduan onartua— 1.725.947,92 eurokoa zen. Ekitaldi amaieran eta egungo Udal Gobernu taldeak emandako datuen arabera kopuru hori 1.806.034 eurokoa izango da azkenean.

**Diru-lerro garrantzitsuenak**

2016ko aurrekontuko diru-lerro nagusiak pertsonal gastua (575.526 euro), gastu arrunta (466.185 euro), transferentzia korronteak (311.794 euro), finantza amortizazioak (115.286 euro), kapital transferentziak (17.800 euro), finantza-interesak (8.243 euro) eta inbertsioak (129.035 euro) dira.

**Inbertsio nagusiak**

Onartutako aurrekontuak 129.035 euro aurreikusten ditu inbertsioen atalean. "Guretzat oso garrantzitsuak diren hainbat proiektu daude aurreikusita. Aparejadorearen auzia dela eta ordaindu beharrekoa kontuan hartuta inbertsio batzuk lehenetsi behar izan ditugu beste batzuen aurretik. Eta lehenetsi ditugu, esaterako, egoera nahiko arriskutsuan dagoen kantxa konpontzea eta Udalaren funtzionamendurako beharrezkoak diren hainbat elementu: esaterako, zaharkituta gelditu diren ordenagailuak berritzea edo Udal Artxiboa konpontzea eta berritzea", azaldu du Elgetako alkate Iraitz Lazkanok.

**Udal lanpostuen zerrenda**

Eta berrikuntzak aurreikusten dira baita ere udal lanpostuen zerrendan. Egun hamaika lanpostu daude udaletxean, horietatik lau funtzionarioek betetakoak. Beharra ikusita pertsonal laboraletan administrari lanpostu bat gehitzea erabaki du Udal Gobernu taldeak.

Gu Geu Elgetako kideak ez dira guztiz bat etorri aurkeztutakoarekin, eta abstenitu egin dira. "Gai horri buelta batzuk eman behar zaizkiola uste dugu. Forma aldetik akatsak daude eta pentsatzen dugu hausnartu beharra dagoela Elgetako Udalak pertsonal aldetik zelan funtzionatu behar duen", esan du Mikel Larreak. Alkateak, ostera, jakinarazi du "lanpostuak egonkortzearen alde" egingo dutela.

## INBERTSIOAK

Udal aurrekontutik %92,05 gastu finkoetara bideratuko da eta %7,95, berriz, inbertsioetarako erabiliko da: 129.035,36 euro.

| PARTIDA | EUROAK |
|---|---|
| Kantxako lanak eta adinekoen parkea | 35.000 |
| Baserritarren batzordea | 25.000 |
| Eskolako inbertsioak | 12.000 |
| Udal artxiboa | 12.000 |
| Turismo eta ibilbide tematikoa | 10.000 |
| Elgeta Berdea kanpaina | 7.700 |
| Ekipo informatikoa berritzea | 6.000 |
| Kiroldegiko materiala | 4.000 |
| Domingo Iturbe lur sailaren erosketa | 3.000 |
| Irisgarritasun lanak | 3.000 |
| Komertzio txikiarekin elkarlana | 2.000 |
| Joaquin Gaztesi argazki artxiboa | 1.600 |
| Auzo-konposta egiteko guneak | 1.500 |
| Brigadakoendako lan tresnak | 1.500 |
| Fotokopiagailua eta zentralita | 1.135,36 |
| Haurreskolako inbertsioak | 1.000 |
| Kaleko altzariak | 1.000 |
| Ortu komunitarioak | 1.000 |
| Udako ur putzuak | 600 |
| GUZTIRA | **129.035,36** |

ITURRIA: ELGETAKO UDALA

**IRAITZ LAZKANO**
ELGETAKO ALKATEA

### "Pozten gara oposizioaren abstentzioa arrazoi teknikoetan oinarritzeagatik, eta ez sakoneko desadostasunetan"

"Beste formula batzuk topatu behar direla diote Gu Geu Elgetatik. Formula magiko itxura dauka horrek. Gu gobernuan sartu aurretik ere oso zehatz azalduta zegoen Gizarte Segurantzarekin Udalak duen zorra ordaintzeko formula. Bost urteko epean ordaintzeko derrigortasuna geneukan, eta gehitu den zigor berriari dagokionez antzerako ordainketa sistema ezarriko zaigula aurreikusten dugu. Ahaleginduko gara beste modu batera ordaintzen, baina aurreko Udal Gobernuak ere badaki ze saiakera potoloak egin zituen bost urtean ordaindu ahal izateko. Egia esan, daukagun beste aukera bakarra mailegu bat eskatzea da eta Udala beste hogei bat urterako hipotekatzea, eta ez da gure asmoa. Baditugu hainbat marra gorri".

**MIKEL LARREA**
GU GEU ELGETA

### "Agintaldi osorako udal gobernu honek duen plangintza ezagutzea falta zaigu, informazio oso garrantzitsua da"

"Gure ustez, onartu den aurrekontua ez da egin lantaldean; alkateak aurkeztutako aurrekontua izan da. Astebeteko epearekin egindako Ogasun batzordean aurkeztu zuten lehenengo aldiz, eta iruditzen zaigu astebeteko epea oso epe laburra dela emendakinak egiteko. Ikusten dugu baita ere forma aldetik hainbat akats dituela aurrekontu honek: hutsuneak ditu informazioan, bete bako anexoak daude, gastua exekutatzeko arauak eta programako sailkapena ere falta da... Eta ikusten dugu baita ere udal aparejadore ohiaren auziak nahiko baldintzatzen duela udal aurrekontu honen exekuzioa. Uste dugu formula berriak bilatu beharko liratekeela auzi hori aurrekontuan hain eraginkorra izan ez dadin".

## OHARRAK

**HILEROKO KOPA, HITZALDIA**
Gaur, hilak 8, 18:00etan, liburutegian. Hilerokoan erabiltzeko sistema aurkeztuko dute. Tanpoiak eta konpresak ez erabiltzeko aukera ematen du.

**AUTOBUSA BILBORA**
Bihar, zapatua, Bilbon egitekoa den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Elgetatik. 16:00etan abiatuko da herriko plazatik. Interesatuek Haizea tabernan eman dezakete izena.

**SORMENING TAILERRA**
Familiendako tailerra Espaloian, domekan, 11:30etik 13:00etara. Prezioa bi lagunendako 15 euro, eta hiru lagunendako 20 euro.

**KANTSATZEKE TALDEA**
Bazkide egiteko eta federatu txartela egiteko aukera emango du Kantsatzeke Mendi Taldeak urtarrileko martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxeko bigarren solairuan.

**NEGUKO ARROPA BILKETA**
Europa ekialdeko errefuxiatu kanpamenduetara bidaltzeko neguko arropa bilketa kanpaina abiarazi du Hotz Bergara taldeak. Bilketa puntuetako bat Saioa masajeak lokalean dago.



L.Z.



L.Z.

## Harrera polita izan dute Gabonetako ekintzek

Amaitu dira Gabonak. Neska-mutikoak astelehenean itzuliko dira eskolara. Askotariko ekintzak izan ditugu Gabonetan: musika ikasleen emanaldia, Olentzeroren etorrera, Gabon kantak, erakusketak, bisita Mizpirualden bizi diren herrikideei, enduroko txirrindulari Markel Uriarteren hitzaldia eta erakustaldia, Txertubi taldearen dantza saioa... Goiko argazkietan, haur parkea eta gaztetxoen mendi bizikleta irteera.



L.Z.

## Pilota txapeldunen festa

Amaitu dira helduen eta umeen pilota txapelketak. Urtezahar egunean Ibon Unzetabarrenetxeak, Mikel Beretxinagak, Iban Retolazak eta Enrike Elkorok jantzi zuten txapela. Umeetan, berriz, Erregue Egunean jokatu zituzten finalak. Argazkian ikus daitezke pilota jokalari gazteak Iraitz Lazkano alkatearekin eta Mikel Elkoro kirol zinegotziarekin.

# Gabonetan ere geroago eta kirolari gehiago ibarrean

## Abenduan, guztira, bost herri lasterketa egin dituzte ibarreko herrietan

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Badira urte batzuk urteko lehenengo GOIENA papereko kirol orriak Gabonetan gertatutakoa argazkien bidez erakusteko aprobetxatzen direla, eta urtetik urtera geroago eta zailagoa da inor kanpoan utzi barik denei lekua egitea. Seinale ona da hori. Izan ere, kirol jarduera edozein dela ere eskaintza geroago eta zabalagoa da. Hala, nabarmentzekoa da ohiko kiroletatik harago jendeak gutxiago praktikatzen diren jarduerak ere aukeratzen dituela.

Eta nabarmentzekoa da, baita, federatutako kirolari gazteendako antolatzen diren torneoetatik harago, herri mailako kirolariendako ere eskaintza zabala dagoela.

**Kros berriak jaio dira**

Hori da albiste pozgarrietako bat. Duela gutxira arte urteko azken egunean Eskoriatzan eta Oñatin baino ez zituzten ospatzen San Silvestre probak, eta orain ia herri bakoitzak du berea.

Arrasaten hasten da abenduko krosen eskaintza, santamasetako kuadrillen arteko lasterketarekin. Aurtengo nobedadeetako bat, berriz, Antzuolan izan dute, San Esteban eguna Gabonetako lehen krosa egiteko aprobetxatu zuten-eta antzuolarrek, oso emaitza onarekin.

Hilaren 31n, berriz, Bergaran mendi lasterketako formatua aukeratu zuten Hankaluzekoek iaz, eta bigarren edizioa ere arrakastatsua izan da –izen-ematea 300era igota ere jendea kanpoan geratu da–.

Eta Aretxabaletan azken orduan antolatutako lasterketa izateko, emaitza oso ona izan zen, askok egin zuten-eta korrika lehenengo San Silvestre proban (150 lagun) mozorrotuta, Aratuste gosez dauden seinale. Amaitzeko, *klasikoek* ez zuten hutsik egin, Eskoriatzako eta Oñatiko krosek kuadrilla galanta batu zuten-eta, urtero moduan.

Eta orain, batu kros guztietan korrika ibili diren herritarrak, eta baietz milako zenbatekoa erraz gainditu. Bada, duela urte batzuk –ez asko– pentsaezina zen zenbateko hori.































01 **MOZORROTUTA** Aretxabaletan 150 herritar animatu ziren San Silvestrean korrika egitera.

02 **MENDIAN LASTERKA** Juanjo Oiarzabal eta Elena Frechilla izan ziren onenak Bergaran.

03 **GABONETAKO LEHENENGO KROSA** Giro polita Antzuolan hilaren 26an egindako krosean.

04 **ESKORIATZAN XANPAINA** Topa egin ostean hasi ziren korrika Eskoriatzako *silbestradien*.

05 **JENDETSUENA** 321 herritar batu zituen Oñatiko San Silvestreak.

06 **HARROBIA, ONDO** Pilotari gazte mordoa batu ziren Bergaran Gabonetako txapelketetan.

07 **PIRATAK NAGUSI** Madrilgo taldeak irabazi zuen Ointxe!-ren Gabonetako Torneoa.

08 **'MUTXI'-REN OMENEZKOA** Bergarako alebinen txapelketan Reala izan zen onena.

09 **EIBARKO GAZTEAK, ONDO** Gazte mailako txapelketan Eibarrek Realari irabazi zion finalean (2-0).















**10 MAROKOARRAK** Euskadiko eskubaloi selekzioak eta Marokokoak lagunartekoa jokatu zuten Iturripen (31-28).

**11 SASKIBALOIA** Iraurgi eta Orio nagusi Bergarako infantilen txapelketan.

**12 SQUAHSEAN** AKEko kideen arteko txapelketa egin zuten urtea agurtzeko Musakolan.

**13 ARIZMENDIREN TORNEOA** Realarendako izan zen Emakumezkoen XI. Gabonetako Txapelketa.

**14 PATIN GAINEAN** Hanka Labankakoek egun osoko hockey jardunaldia antolatu zuten.

**15 BIXENTE ETXEANDIA** futbol torneoak Ibarra gaztetxoz bete zuen ostera.

**16 'TXELIS'-EN OMENEZKOAN** Mondrako gaztetxoak nabarmendu ziren, lehenengo aldiz.

**17 ARRASATE HIRIA** Xake torneoa egin zuten Arrasaten, eta hamasei xakelariren artean nazioarteko maisu Mikel Huerga izan zen onena.

SASKIBALOIA

## Mondragon Unibertsitateak liderraren bisitarekin hasiko du urtea Iturripen, bihar, 20:15ean

Partidu bakarra galdu du Kantabriako Pas Pielagos taldeak, eta joera on hori amaitzea izango da zuri-moreek urte berrian izango duten lehenengo erronka. Ezohiko orduan jokatuko dute partidua, 20:15ean, Iturripen. Euskadiko bigarren mailan, ostera, Natra Oñatik Santurtzin jokatuko du zapatuan (18:30), La Trattoria Napoletana taldearen kontra.

ESKUBALOIA

## Oilarren arteko borroka ekarriko du urteko lehen jardunaldiak: Izarraitz Aloñak Basauri hartuko du

Basaurik, Ford Mugarri Arrasatek eta Izarraitz Aloña Mendik 21na puntu dituzte, eta hirurak daude aurrealdeko postuetan. Basauri da, baina, orain momentuan agintzen dabilena, eta ikusteko dago asteburuaren ondoren aldaketarik egongo den, Zubikoara egin beharko dute-eta bisita (zapatua, 18:00). Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Corazonistas hartuko du domekan (11:45).

MENDI LASTERKETAK

## Gaur zabaldu dute otsailaren 14an Antzuolan egingo duten 8 Miliak lasterketako izen-emate epea

Laugarren urtez Antzuolako 8 Miliak probak estreinatuko du bailarako mendi lasterketen egutegia. Otsailaren 14an izango da hitzordua, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea (*herrikrosa.eus*). Hala, herritarren artean parte-hartzea sustatzeko asmoz, aurrez izena eman dutenen artean 10 izen-emate zozketatuko dituzte, eta zozketa hori gaur egingo dute.

FUTBOLA

## UDAk atzealdekoen arteko borroka izango du hirugarren mailan; Bergarak etxean jokatuko du

Bergara da, bailarako futbol talde nagusiei dagokienez, etxean jokatuko duen ordezkari bakarra. Hirugarren mailan, UDAk urrezko hiru puntu ekarri zituen urteko lehen partiduan, joan den astean, Santurtzitik (1-2), eta bihar (18:00) Santurtzin jokatuko dute, eurekin batera atzean dagoen taldearen kontra. Bergarak, ostera, Soraluze hartuko du bihar Agorrosinen (15:45).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
Berio-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Zubieta.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Mutriku-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. San Migel.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zumaiako-Aretxabaleta
Zapatua. 15:45. Aita Mari.
Urola-Mondra
Zapatua. 16:00. Argixao.
Bergara-Soraluze
Zapatua. 15:45. Agorrosin.
Tolosa-Antzuola
Domeka. 12:00. Usabal.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Arizmendi-Tolosa
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Euskalduna-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Ubitarte.
Burumendi-Bergara
Zapatua. 17:45. San Migel.
Aretxabaleta-Zumaiako
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Urola
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eskoriatza-Escalibur.
Zehaztu gabe.
Sasikoa Durango-UDA
Zehaztu gabe.

**LEHENENGO MAILA**
Tellatuberri-Mondrate
Zehaztu gabe.

**HIRUGARREN MAILA**
Mondrate-Zarautz
Zehaztu gabe.

**EMAKUMEZKOAK SENIORRA**
Anoeta-Eskoriatza
Zehaztu gabe.

**GIPUZKOAKO LEHEN MAILA**
Mondrate-Irudek Barrantol
Zehaztu gabe.

**ESKUBALOIA**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Egia koxko-Bergara
Zapatua. 16:30. Egiako.

**EUSKAL LIGA SENIORRAK**
Izarraitz Aloña Mendi-Basauri
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Ford Mugarri-Limpiresol
Domeka. 11:45. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Aloña Mendi-Aiala ZKE
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**GIPUZKOA TXAP. GAZTEAK.**
Beristain-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Olaizaga.
Arrasate-Bidasoa Irun
Domeka. 10:00. Iturripe.
Bergara-Zarautz
Domeka. 12:00. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
MU-Pas Pielagos
Zapatua. 20:15. Iturripe.

**BIGARREN MAILA**
La trattoria-Natra Oñati
Zapatua. 18:30. El Barracon.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
Alde Zaharra-MU
Zapatua. 20:00. Altza.
Donosti Dolphins-Bergara
Zapatua. 18:00. Benta Berri.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Bera Bera Antiguo-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Paco Yoldi.

**GAZTEAK LEHEN MAILA**
Soraluze Bergara-Atletiko Ss
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

**ERRUGBIA**

**SENIOR BIGARREN MAILA**
ART-Babyauto Zarautz
Domeka. 11:00. Mojategi.

**PILOTA**

**NAGUSIAK**
Aloña Mendi-Gazteleku
Gaur. 18:45. Zubikoa.

**JUBENILAK**
Aloña Mendi-Hondarribia
Gaur. 18:45. Zubikoa.

**INFANTILAK**
Legazpi-Aretxabaleta
Gaur. 18:30. Urbeltz.
Legazpi-Arrasate
Gaur. 18:30. Urbeltz.
Aloña Mendi-Zumaia
Gaur. 18:45. Zubikoa.
Aloña Mendi-Legazpi
Gaur. 18:45. Zubikoa.

**ALEBINAK 1**
LAPKE-Bergara
Gaur. 18:30. Lazkao

# 'La Traviata' operako dekoratuak, Donostiara eramateko ia gertu

## Moñux eta Odriozola bergararrek egin dituzte, Opus Liricaren enkarguz

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

Urrian hasi ziren Valen Moñux eta Alex Odriozola bergararrak Donostiako Opus Lirica konpainiak otsailaren 19an Kursaalen estreinatuko duen *La Traviata* operaren dekoratuak egiten. "Lan handiena eginda dago; dekorazioa eta azkeneko detaileak falta dira. Bulegoko lanak egin ditut nik, bereziki: planoak, aurrekontuak... Tailerreko lanak, berriz, Alexek egin ditu, eta sei lagunen laguntza izan du. Bergarako Bidekurutzeta kalean Susana Izak utzi digun lokalean dugu tailerra. Aurreko domekan, Txomin Martin Opus Liricako lehendakaria izan zen han; oso konforme agertu zen egindakoarekin", azaldu du Moñux zuzendari artistikoak.

**Jauregia, lorategia eta logela**

Dekoratuen estiloa eta obraren kontzeptua zeharo librea zuten; baldintza bakarra partituran eta libretoan mozketarik ez izatea zen; hori horrela, XIX. mende erdiko Parisen kokatutako kontzeptu klasizista aurkeztu zutela dio Moñuxek: "Lehenengo dekoratuarekin izan dugu lanik handiena; jauregi baten saloi handi bat da. Lorategi bat da, berriz, bigarrena; loratEgiaren hormak, zuhaitzak eta landareak ikusten dira, eta atzean, Bergaran bizi den Ramon Arantzabal arrasatearrak margotutako jauregi baten fatxada ederra dago. Hirugarren dekoratua protagonistaren logela da. Aurretik egindako hainbat dekoratutan oinarritu gara gauza asko egiteko. Zailtasun handiena dekoratuen tamaina handia izan da".

**Etxeko aktoreak eta abeslariak**

Zuzendaritza artistikoaren ardura ere badu Moñuxek: "Jantziak, argiak, abeslarien mugimenduak, bakarlarien interpretazio estiloa... hau da, taularen gainean ikusten den guztia. Horrek aukera eman dit *Mozkorra parregarri* operako bost aktore honako honetan sartzeko. Eneko Galdosek, Bergarako Musika Eskolako dantza irakasleak, ere parte hartuko du; Edu Muruamendiarazen laguntzarekin osatu dugu haren koreografia. Era berean, eskola bereko bost abeslari ere aukeratu ditugu operan kantatzeko".



Odriozola eta Monux *La Traviata* operako dekoratuak egiten. | VALEN MONUX



Bergarako Bidekurutzeta kalean duten tailerrean Odriozola lanean. | V.M.

# Herritarrei kalitatezko liburuak gomendatuz

## Neguko Gidaren 8.000 ale banatu dira Debagoieneko ikastetxe eta liburutegietan

**MAIDER ARREGI** | ARETXABALETA

2016ko Neguko Gidaren ardura Aretxabaletako liburutegiari egokitu zaio. Hala, 1.000 ale banatu direla Aretxabaletako ikastetxeetan eta liburutegian azaldu du Joseba Lopez de Armentiak, liburutegiko arduradunak. "Guztira, 8.000 ale atera ditugu bailaran banatzeko: horietatik 1.000 Aretxabaletan banatu ditugu. Formatu digitalean ere ipintzen dugu Interneten –Aretxabaletako Udaleko webgunean eta *arkupe.eu* webgunean–. Gehienok eskoletan eta liburutegietan banatzen ditugu. Helburua da jendeari kalitatezko liburuak gomendatzea. Askotan eskatzen dizkigute gomendioak eta horrela badute aukeraketa bat adin tarte bakoitzarentzat. Beti saiatzen gara liburu argitaratu berriak eta kalitatezkoak aukeratzen. Gabonen inguruan ateratzen denez jendeak opariak egiteko orduan ere erreferentzia bat izan dezake", gaineratu du Lopez de Armentiak.

**Liburuak eta diskoak**

2006an jarri zen abian Neguko Gida. "Biblioporrak 1994an hasi ginen egiten eta 2006an Mankomunitateak laguntza bat eskaini zigun Neguko Gida egiteko; gerora, krisiarekin, laguntza hori desagertu egin zen, baina aurrera jarraitzea erabaki genuen", azaldu du.

Aramaio, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Legazpi eta Oñatiko liburutegiekin elkarlanean egindako gida da. 0, 6 eta 9 urtetik aurrerako gomendioak egiten dira. Gazteak atalean seina liburu gomendatzen dira. Helduentzat hamabost liburu, bost disko eta bost film ere gomendatzen dira 2016ko Neguko Gidan.

### Otsailaren 10a bitartean aurkez daitezke Huhezinema Euskal Film laburren Jaialdirako lanak

Martxoaren 16tik 18ra bitartean izango da MUko Ikus-entzunezko Fakultatearen bederatzigarrena. *Huhezinema.com* atarian kontsulta daitezke oinarriak. Movibeta eta Festhome plataformen bidez aurkez daitezke lanak, eta berrikuntzak izango dira sarietan: Goiena sariaren irabazleak, diruaz gainera, kamera-materiala alokatzeko aukera izango du. Sari horrekin sortutako euskarazko film laburra Huhezinema 2017an erakutsiko dute.

# Herri txikienek hartu dute egoera kontrolpean aurtengo Toberan

## Debagoieneko Eguna ospatuko dute hurrengo urtetik aurrera

**M.A.** | ESKORIATZA

Aretxabaletak Eskoriatza salatu du aurtengo herri antzerki satirikoan eta Kurtzebarri mendiko gurutzea zein herriren esku geratuko den erabaki behar izan zen abenduaren 28an, Inuzente eguna, Eskoriatzako kiroldegian egin zen epaiketan. Hauxe izan zen epaia: aretxabaletarren eta eskoriatzarren artean gurutze berri bat eraiki beharko dutela, ez mugak zehazteko, baizik eta bi herrien topaketak irudikatzeko. Mendiaren izena ere aldatu egin beharko dute, Elorreta Berri izena hartuko du; eta herri txikienekin hurrengo urtetik aurrera Debagoieneko Eguna ospatu beharko dute.

**Herri txikienen matxinada**

Debagoieneko herri txikienen matxinada ere irudikatu zuten Toberan. Bertan parte hartu zuten Antzuolako, Aramaioko, Elgetako eta Leintz Gatzagako ordezkariek. Antzuolako alardeko jeneralak, esaterako, esan zuen Bergararen menpe egon zirela 1629ko abenduan independentzia lortu zuten arte, haien "handikeriaz zapalduta". Hori defendatzera irten zen oholtza gainera, bestalde, ikus-entzuleen artean eserita zegoen Telesforo Monzon bergarar eta euskaltzalea.

Epaian datorren urtetik aurrera herri txikienek Debagoieneko Eguna ospatuko dutela azaldu zuen epaileak.



Mari Paz eta Mari Kruz eskoriatzarrak autobusaren zai. | IMANOL SORIANO



On Prudentzio Piper Hautsa epailea adinean gora doala ikusi zen. | IMANOL SORIANO


ZATOZ GORBEIAKO
BEHERAPENETARA
SARTU
CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM
WEBGUNEAN ETA IRABAZI
1.000€
EROSKETA TXARTELETAN
GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com
Oinarri guztiak centrocomercialgorbeia.com webgunean
Promozioak 2016ko urtarrilaren 7tik 31ra arte iraungo du
GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

# Inprobisazio gala bat, Irazan taldea herriari aurkezteko

## Oñatiko antzerki talde berriko kideek publikoak jarritako gaiak antzeztuko dituzte gaur gaztelekuan

**M.T.** | OÑATI

Inprobisazio gala antolatu du Irazan antzerki-guneak gaur gauerako. 22:30ean hasita, gaztelekuan egingo dute. *BAT edo BIP* izena jarri diote ekimenari, eta bertan, Irazan-kideek publikoak aukeratutako gaiak landuko dituzte inpobisazioaren bitartez. Galarako sarrerak gaztelekuan bertan jarriko dituzte salgai, prezio sinboliko baten truke. Taldea eta bertako kideak herriari aurkeztea da ekimen horren helburua, Irazanetik azaldu dutenez.

Ekainean hasi ziren antzerki talde bat sortzeko biltzen, eta irailean martxan jarri zuten. Deialdiak arrakasta izan zuen, eta gaur egun bi taldek dihardute, helduenak eta gaztetxoenak. Irazanen nagusien taldean 30 pertsona baino gehiago dabiltza orain, eta hamabost gaztetxoenean. Sortzaileetako bat izan zen Josu Zubiak dioenez, taldea sortzea erabaki zutenean, "10 pertsona biltzea sekulako arrakasta" izango zela zioten, eta ondorioz, "kristoren sorpresa" izan zen sortzaileentzat horrenbeste jende batzea. Hala, bi talde egin behar izan zituzten, baina, Zubiak dioenez, mota horretako sorpresak beti izaten dira "ongietorriak". Eltzia eraikineko gela batean dago kokatuta Irazan antzerki -gunea.



Irazaneko helduen taldeko kideak. | IRAZAN

### Publikoa, gai jartzaile

Gaur gaueko galan, ikusleak gai jartzaile lanetan arituko dira, eta eurek eskatutako gaiak antzeztuko dituzte Irazanekoek, momentuan bertan inprobisatuz. "Inor larritu ez dadin", Zubiak azaldu du publikoko kideak ez direla taula gainera atera behar. "Irazanekook bakarrik egongo gara agertokian, eta ikusleek euren tokitik proposatuko dituzte gaiak".

"Nortzuk garen aurkeztea". Hori da gaurko hitzorduaren helburua, Zubiaren esanetan. Horretarako, inprobisazio gala aukeratu zuten, "aukera asko ematen duelako eta publikoarendako ere interesgarria delako".

### 23an gaztetxoen txanda

Gaurko inprobisazio galan nagusien taldekoek parte hartuko dute, baina umeek ere aurki izango dute eurei zuzendutako ekintza bat. Pailazo saio bat egingo dute urtarrilaren 23an, Elkar Hezi ikastetxeak proposatuta. Aurreragorako ere gaztetxoen taldearekin beste ekimen bat prestatzen dabiltzala aurreratu du Zubiak.

Irazanetik gogorarazi dute taldean parte hartzeko interesa daukan edonorentzat "ateak zabalik" daudela.



Joseba B. Lenoir Gang. | JON IRAUNDEGI

# Joseba B. Lenoir Gang, hurrengo Kooltur eguenean

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Indartsu ekin diote urte berriari Kooltur ekimeneko antolatzaileek. Urtarrilean ere, betiko moduan, eguen gauero emanaldi bat izango da ikusgai Arrasateko gaztetxean. *BAT* izeneko lehen diskoa atera berri duten Rural Zombies zestoarren post -rock elektronikoa izan zen urtarrileko eta 2016ko Kooltur zikloa ireki zuena, atzo.

Datorren eguenean, berriz, hilak 14, Joseba B. Lenoir Gang boskotea izango da gaztetxeko taula gainean. Joseba Baleztena beratarrak -Joseba B. Lenoir-, Felix Buff eta Xan Bidegain Willis Drummond taldeko kide ohiek eta Napoka Iria osatzen zuten Miren Narbaizak eta Ander Mujikak osatzen dute iazko otsailean sortutako taldea. Izen handiko musikarien zuzeneko rockaz gozatzeko aukera izango da, beraz, datorren eguenean Arrasateko gaztetxean.

### Hip-hopa eta post-rocka

Taula gainean izango den hurrengo taldea, berriz, Kataluniatik etorriko den Lagrimas de Sangre izango da. Hip-hop musika lantzen du 2007an sortutako laukote horrek, rock eta reggae ukituekin. Batez ere, gai politiko eta sozialak jorratzen dituzte, mezu zuzenak gitarra elektrikoen distortsioarekin uztartuta.

Bukatzeko, urtarrilaren 28an Bilboko Sonic Trash taldearen post-rock doinuek itxiko dute urtarrileko egitaraua. 2015ean atera zuten bigarren diskoa, *Latigo* izenekoa, eta kritika oso onak izaten ari da. Rock, punk, indie-rock eta pop estiloen eraginak sumatu daitezke laukote honen musikan.

Betiko moduan, Kooltur egitasmoko emanaldi guztiak gaueko hamarretan hasiko dira, eta sarreraren prezioa bost euro da.

# Rigoletto opera antzeztuko dute otsailaren 24an Amaia antzokian

**M.T.** | BERGARA

Domeka honetan, urtarrilaren 10ean, jarriko dituzte salgai otsailaren 24an ,eguaztena, Arrasateko Amaia Antzokian ikusgai izango den Rigoletto opera famaturako sarrerak. Opera 2001 konpainiak taularatuko du Giuseppe Verdi konpositore italiarraren obra, eta nazioarteko hainbat artistak hartuko du parte. 20:00etan izango da Arrasateko emanaldia, eta Ozenki elkartearen eskutik dator.

Ekoizpen hori aurki estreinatuko dute Valentzian Opera 2001ekoek, eta horrela, otsaila eta martxoa bitartean Espainiako eta Frantziako estatuetako hiriburu eta hiri garrantzitsu askotatik pasako den bira bat hasiko dute; bira horren baitan, Arrasatetik ere pasatuko dira.

### Protagonistak

Plevengo (Bulgaria) orkestra sinfonikoa izango da operari musika jartzeaz arduratuko dena, Martin Maziken zuzendaritzapean. Verdiren istorioko protagonista nagusiak interpretatuko dituzten aktore-abeslariak, berriz, honako hauek izango dira: Rigolettoren papera Giulio Boschetti baritonoak beteko du; Gildarena Sonia Bellusik (sopranoa); Mantuako Dukearena David Bañosek (tenorea), Monteronerena Tihomir Androlovek (baritonoa) eta Maddalenarena Liliana Matteik (mezzo-sopranoa).

### Sarrerak non eskuratu

Rigoletto opera Arrasaten ikusteko sarreren prezioa 30 euro da, eta Amaia Udal Antzokiko leihatilan, Kutxabanken, Arrasateko Udalaren webgunean edota Ozenki elkartearen posta elektronikora idatzita eros daitezke: *ozenkielkartea@hotmail.es*. Aipatu bezala, etzitik aurrera izango da sarrerak eskuratzeko aukera.



Rigoletto opera. | OPERA 2001

# Txotxongiloak eta kantua bat eginik 'Kontukantari' ikuskizunean

## Bergarako Zabalotegi aretoan eskainiko dute emanaldia, arratsaldeko seietan hasita

Domeka arratsaldean, 18:00etan hasita, *Kontukantari* izeneko ikuskizun berritzailea izango da ikusgai Bergarako Zabalotegi aretoan. Bilboko La Ressistens eta La Enana Naranja konpainien bategitetik sortu zen *Kontukantari*. Kantua, txotxongiloak eta antzerkia uztartuko dituzte emanaldi berezi horretan. Bi urtetik gorako umeak dituzten familiei zuzenduta dago bereziki Zabalotegiko hitzordua.

### Ikusleak ere protagonista

Ikuskizun horretan, Sandra eta Boti izeneko protagonistek "betiko" abesti ezagunak berrikusten dituzte, reggae, rap eta blues erritmoetara eramanda, eta publikoarekin batera abesten dituzte kantu horiek, "nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten". Era berean, abestietan kontatzen diren istorioak antzezten dituzte. Hala, arratoitxoak itsasontzi batera igotzen, lanera joan nahi ez duten Txonbo eta Ziku, edo Nana eta Granu azokan txakur bat erosten ikusi ahal izango ditu publikoak.

Hamar kantu abestuko dituzte denetara, guztiak euskaraz: Txiki txikia, *Txakur bat, Kanuto, Txan Txibiri, Ran Rober Ran, Sorgina Pirulina, Baga Biga Higa, Ixil ixilik, Itsasontzi baten, Ez goaz lanera* eta *Gora ta gora beti*.

Sarrerak 4 eurotan izango dituzte salgai Zabalotegi aretoko leihatilan. Domekako ikuskizunak 50 minutu inguruko iraupena izango du.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** 65 metro koadroko etxebizitza salgai Arruriaga kalean. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 943 76 93 85

### 102. EROSI

**Baserria.** Baserri bat erosiko nuke. Baita errentan hartu ere. Eraikitzeko moduko lursaila ere hartuko nuke. Bergara inguruan. 606 53 53 52

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 500 euro hilean. Kontratuarekin. 647 29 18 79

**Bergara.** Baserria ematen da errentan, San Blas auzoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 70 79 54

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 634 14 36 65

**Arrasate.** Erdigunean hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 627 60 79 99

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan, ahal bada erdigunean. Hilean 450-500 euro ordain ditzaket. 618 87 50 97

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada, erdigunean hobeto. 603 21 91 32

**Arrasate.** Logela bateko apartamentu baten bila nabil. Erdigunean. 400 euro ordaintzeko gertu. Pertsona bakarra. 610 99 42 03

**Bergara.** Bikote batek etxebizitza behar du errentan. Terraza badauka, hobeto. 659 77 01 46 (Alberto)

**Bergara.** Erretiratu bikote batek etxebizitza behar du errentan, elbarriendako egokitutako bainugelarekin eta igogailuarekin. 632 77 35 38

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan, berokuntzarekin. 645 70 51 45

### 105. ETXEAK OSATU

**Logela errentan Oñatin.** Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. 943 76 93 85

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Polo Garaia inguruan garaje bila nabil, furgoneta batentzako. 610 88 85 03

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**BERGARA**
Zerbitzaria behar da okindegi-kafetegirako.
618 90 23

### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Emakumea lanerako gertu, pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko edo bestelakoetarako. 631 49 94 96 edo 688 85 44 78

**Arrasate, Aretxabaleta edo Bergara.** Emakumea gertu goizetan lan egiteko: nagusiak zaindu edo kalera laguntzen, etxeko lanak egiten, lisatzen edota aldi baterako zaintza lanak egiten. Autoa daukat. 678 39 38 13

**Arrasate.** 48 urteko emakume euskalduna, etxez etxeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. Telefonoa:. 605 71 50 14 (Maribel)

**Arrasate.** Nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago. 616 35 54 96 (Carmen)

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. 679 30 12 37 (Arelis)

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu garbiketak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 648 60 81 65 (Amaia)

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna tabernan zerbitzari lanak egiteko prest Arrasaten. Interesik izanez gero deitu telefono honetara: 655 82 47 29

**Arrasate.** . Neska gaztea umeak zaintzeko gertu. 622 77 19 30

**Bergara.** Emakumea gertu nagusiak egun osoz zaintzeko. Euskalduna eta urte askotako esperientzia. 688 65 30 62

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak


KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Madura, 65m², 4 logela, bi balkoi. 110.000 € AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130m², 4 log, 320.000 € PREZIO JEITSIERA. Terraza, igogailu, patioa
- Justo Garate, 60 m², 2 logela, terraza. 177.000 € PREZIO JEITSIERA. Garajea aukeran
- Pº Irizar, 93m², 2 logela, 2 balkoi. Zentroan. 180.000 € PREZIO JEITSIERA.
- Ibargarai, 105m², 4 logela, balkoia. 420.000 €. Garajea Aukeran.
- Artekale 83 m², 3 logela, trastelekua eta igogailua. 155.000 € AUKERA ONA.
- Ernai, 52m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garajea eta trastelekua. 150.000 €. AUKERA ONA.
- Koldo Eleizalde, 74 m²+30m² ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000 €
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000 € NEGOZIABLEA.
- Koldo Elelizalde 87m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztuta. 210.000 €
- Burdiñate, 93m², 3 logela, igogailua. 210.000 € PREZIO JEITSIERA. Garajea aukeran
- Masterreka 72 m², duplexa. 150.000 € ESTREINATZERA. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Zubieta 125 m², terraza eta 2 horturekin. Bi etxe egiteko aukera 192.000 €
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Pedro 90 m², 4 logela. 95.000 € AUKERA ONA
- Zabalotegi, 80 m², 2 logela, berriztua. 156.263 €
- Zabalotegi, 62 m², 3 logela. Berrizteko. 80.000 €
- Artekale 108 m², 3 logela. 120.000 € OSO OSO NEGOZIABLEA.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Martoko, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000 €. OSO NEGOZIABLEA.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogoilua. 98.000 € AUKERA ONA.
- Zubiaurre 81 m², 2 logela, trastelekua. 73.000 € PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000 € PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Baserria 233m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000 €
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000 €. AUKERA BIKAINA
- Osintxu 70m². 2 logela eta igogailua. 62.000€ AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 57 m². 2 logela. Oso ondo. 97.000 €
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€

**ELGETA:**
- Gudarien Bidea, 75 m², berrizteko. 72.000 € AUKERA BIKAINA
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.


**Debagoiena.** Bikote bat gara eta nagusiak zaintzen, etxe zein elkarteak garbitzen eta baserriko lanak egiten jarduteko gertu gaude. Biok edo banaka. 688 68 23 98

**Debagoiena.** Emakumea gertu 11:00etatik aurrera etxeko lanak egin edota nagusiak zaindu eta paseora laguntzeko. 672 98 20 91

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxeko lanak egiten eta bertako jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Esperientziadun neska nagusiak etxean bertan bizi izaten zaintzeko gertu. Erizain ikasketak ditut eta aurreko lanetako erreferentziak aurkez ditzaket. 631 06 20 22

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 622 59 39 87

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Emakume nagusiak zaintzezko ere bai. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaindu edo etxeko mantenu zein garbiketak egiteko. Ordutegi arazo barik. 634 14 36 65

**Debagoiena.** Gizona gertu zaintza lanetarako edota baserriko lanetan laguntzeko. Autoa daukat. 634 09 55 46

**Debagoiena.** Iturgintzan lan egingo nuke. Gertu nago beste lan mota bat egiteko ere. Euskara eta frantsesa dakizkit. 615 28 21 52

**Debagoiena.** Laguntza behar duten pertsonak zaintzen esperientzia handia duen neska ikasketaduna, gertu nagusi eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako. Erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hiru urteko esperientzia daukat eta agiriak aurkez ditzaket. 678 25 95 46

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen edo sukaldari laguntzaile ere lan egingo nuke. 685 64 85 64

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Gidabaimena daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta garbiketa eta abarrez arduratzeko. Esperientziaduna. Frantsesez eta ingelesez ere berba egiten dut. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz eta orduka. 602 86 59 37

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. 664 27 43 72

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, etxeko lanak egiten edo enpresak garbitzen lan egingo nuke. 685 77 66 21

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 660 90 51 50 (Argeli)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin eta abarretarako gertu nago. 686 44 70 38

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, jardun osoz zein orduka. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketak egiten esperientzia handia duen emakumea, etxeko langile moduan aritzeko gertu: nagusi eta umeak zaindu edota garbiketak egiten. Aurreko lanetako erreferentziak aurkez ditzaket. 632 87 22 46

**Debagoiena.** Nagusiei laguntzen, umeak zaintzen, tailerrean, lantegiak garbitzen zein bestelako lanetan aritu izan naiz. Ordutegi aldetik arazo barik. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 682 60 89 80

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. 630 85 48 45

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldez edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. 622 24 86 64

**Debagoiena.** Neska gertu etxean nagusiak zaindu edota ospitalean gauak pasatzeko. Geriatria titulduna naiz. Autoa daukat. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 626 44 46 49

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen edo etxeko garbiketak egiten lan egingo nuke. 634 71 25 07

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan ikasketak dauzkan emakumea, pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo etxean bertan bizitzen lan egiteko aukera. 634 92 31 33

**Emakume euskalduna.** Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketak egiteko. Elkarteak, tabernak, atariak eta abar. Etxe partikularretan janaria prestatzeko gertu denborarik ez duten pertsonei. Sukaldaria izan naiz urte askotan. Autoa eta gidabaimena ditut. 690 86 46 80

**Haurrak zaindu.** Irakasle ikasketak egiten dabilen 25 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko prest, Bergaran, Arrasaten edo Aretxabaletan. Esperientzia handikoa. 680 17 33 61

**Lan bila.** Barrako zerbitzari, ume eta nagusiak zaintzen edota taberna, atari eta elkarteak garbitzen lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu nago. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Eibarren. 676 44 85 58

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Goi mailako moduluan eskola partikularrak emango dizkidan pertsona baten bila nabil. 943 76 03 75

### 502. EMAN

**Bergara.** Kimikan lizentziatua naiz. Kimika, fisika eta matematika eskola partikularrak ematen ditut. Batxilergo eta DBH mailatan. 669 51 08 46

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Paseorako bizikleta.** Paseorako bizikleta erosiko nuke. 653 70 84 09

### 804. HARTU

**Bizikleta.** Helduen tamainako bizikleta hartuko nuke. Emateko moduan badaukazu, deitu zenbaki honetara: 650 96 23 08

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Elixabete Gabilondo Larrañaga**
Urtarrilaren 9an, 4 urte. Zorionak, neska handi eta eder! Patxo handi bat Martinen eta familixa guztiaren partetik eta egun politxa pasatu deizula!



ARRASATE
**Izaro Artetxe Arregi**
Urtarrilaren 9an, 9 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu zure urtebetetzean familia eta lagunekin. Muxu handi bat. Etxekoen partetik.



ANTZUOLA
**Lide Etxezortu Gabilondo**
Urtarrilaren 8an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Alaitz Azula Urrutia**
Urtarrilaren 7an, 8 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu, aitaren eta amaren partetik!



BERGARA
**Markel Martinez Garitano**
Urtarrilaren 6an, 8 urte. Zorionak, Markel! Edarki ospatu zure urtebetetze eguna etxeko guztien partetik. Muxu handi bat.



OÑATI
**Naroa Moreno Zubia**
Urtarrilaren 6an, 8 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu maitagarriak etxekoen partetik. Mua, mua, mua, mua, mua, mua, mua eta mua!



ARRASATE
**Pili Seco Moreno**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Eskerrik asko errege eguneko bazkari eta errosko goxoengatik! Asko maite zaitugu! Itxasok, Anerrek eta Unaxek.



BERGARA
**Oihan Zubiaga Ilarduia**
Urtarrilaren 5ean, 8 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bana etxekuon partetik. Muak!



ARRASATE
**Garazi Nin Ugalde**
Urtarrilaren 5ean, 4 urte. Oin dala 4 urte jaixo jakun etxeko artistia. Zorionak, Garazi! Ederto ospatuko dogu! Patxo erraldoi bat, sorgintxo!



ARRASATE
**Aurora Trenado**
Urtarrilaren 3an. Zorionak, *guapisima*! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat, zure lankide Txarli eta bere aingeruen partetik. Zorionak eta urte askotarako!



BERGARA
**Maialen Goikoetxea Blanco**
Urtarrilaren 2an, 2 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko guztion eta, Danelen eta Eleneren partetik.



ARRASATE
**Ane Aranzabal Vitoria**
Urtarrilaren 2an, 6 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Txokolatezko muxu handi bat, etxeko guztion partetik.



BERGARA
**Manex Osa Arana**
Urtarrilaren 1ean, 3 urte. Zorionak, maitia! Naiaren, amaÑi Neneren, aittita Estebanen, aitatxoren eta amatxoren partetik! Disfrutatu eizula urte barria giro goxoan!



ARETXABALETA
**Nahia Oianguren Lopez de Lapuente**
Abenduaren 31n, 5 urte. Zorionak, printzesa! Dagoeneko 5 urte. Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Nora Justinne Sanchez Sanchez**
Abenduaren 31n, 12 urte. Eman dizkiguzun urte zoriontsu hauegatik guztiengatik, zorionak!



ARRASATE
**Enara Balantzategi Eiróo**
Abenduaren 30ean, 2 urte. Zorionak, Enaratxo, zeure bigarren urtebetetzean! Patxo handi-handi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
**Irati Letona**
Abenduaren 29an, 5 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure bosgarren urtebetetze eguna. Muxu handi-handi bat, etxeko danon partetik. Mua!



BERGARA
**Unax Murgizu Rodriguez**
Abenduaren 29an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta hartu muxu handi bat Iraiaren, Hodeiren eta etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Nerea Gaztañaga**
Abenduaren 28an, 21 urte. Ondo-ondo ibili zure egunean eta zorionak familia osoaren partetik!



ELGETA
**Izei Arizmendiarrieta Merino**
Abenduaren 28an, 4 urte. Zorionak! 4 urte betetzen dituzun egun honetan ondo pasatu. Aitatxoren eta amatxoren partetik.



ESKORIATZA
**Maialen Biteri**
Abenduaren 26an, 14 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu urtebetetze eguna eta topera disfrutatu! Muxu handi bat Madalenen partetik.



OÑATI
**Ainhoa Umerez Nogues**
Abenduaren 26an, 35 urte. Mila-mila zorion, amatxo, pila-pila maite zaitugunon partetik! Mua!



OÑATI
**Aetz Larrea Negeruela**
Abenduaren 25ean, 6 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ESKORIATZA
**Estitxu Azpitarte Rejado**
Abenduaren 24an, 34 urte. Bere gurasoek, zorion potoluak, hiru loratxueri.



ARETXABALETA
**Egoitz eta Izadi Zabala Cabero**
Abenduaren 24an, 3 urte. Zorionak, bioi! Muxu handi bana Haizearen, amatxoren eta aitatxoren partetik; eta segi horren alai eta sinpatiko!



ARRASATE
**Lur Lamadrid**
Abenduaren 24an, 9 urte. Zorionak, Lurtxo! Ondo pasatu zure eguna! Suaren, Liaren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Eñaut Zubizarreta Iñarra**
Abenduaren 24an, 2 urte. Zorionak, Eñaut! Bi urtetxo! Ondo-ondo pasatu eguna, poxpolin, eta patxo potolo bat etxekuen partetik. Mua!



OÑATI
**Amaia Biain Vidarte**
Abenduaren 24an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, familia osoaren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ZORION AGURRAK



DEBAGOIENA
**Iker Mateo Ramos**
Abenduaren 22an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna eta urte askotarako. Patxo handi bat zure familiaren partetik.



ARRASATE
**Sonia Fuentes Jorge**
Abenduaren 22an, urtebetetzea. Zure familiaren partetik, zorionak eta oso ondo pasatu eguna!



OÑATI
**Beñat Arana Urtzelai**
Abenduaren 19an, 6 urte. Ondo pasatu zure eguna! Zorionak etxeko danen partetik!



ANTZUOLA
**Julen Zabalo Azurmendi**
Abenduaren 19an, urtebete. Zorionak etxeko danen partetik!



OÑATI
**Libe Iñurritegi guridi**
Abenduaren 21ean, 9 urte. Zorionak, prexioxa! Egun ederra pasatu dozulakuan, muxu pila bat etxekoen partetik baina, bereziki, autokarabanan ibiltten garienon partetik.



ESKORIATZA
**Ametz Belategi Arrese**
Abenduaren 18an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenien heldu da zure eguna. Ondo-ondo pasatu eta patxo potolo bat etxeko danon partetik! Aupa Reala!




BERGARA
**Beñat Arin Etxabe eta Patri Etxabe Orobengoa**
Zorionak, bikote! Beñatek abenduaren 16an, 10 urte etaPatrik abenduaren 22an, urtebetetzea. Ondo pasatu zuen urtebetetzean eta muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Ilargi Villar Urrutia**
Abenduaren 15ean, 8 urte. Zorionak, polittoi! Orain arte bezain alai eta jator jarraitu. Bihotz-bihotzez, Auritz, Xuban, aita eta ama.



ARRASATE
**Anne eta Alaitz**
Urtarrilaren 6an, 11 urte, Zorionak eta egun ederra pasa ezazue! Zuen familiaren eta lagunen partetik.



ESKORIATZA
**Jon Cabello Garcia**
Abenduaren 23an, 7 urte. Zorionak, pirata! Heldu da zure eguna. Muxu handi bat denon partetik, laztana. Asko maite zaitugu, Jon! Ondo pasatu!



OÑATI
**Nati Altube Arregui**
Abenduaren 23an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Aitor Beistegi Frias**
Abenduaren 23an, 3 urte. Zorionak! Asko maitte zaitugu eta jaso patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Unairen eta lehengusu-lehengusina guztien partetik.



OÑATI
**Alix Igartua Arregi**
Abenduaren 23an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtebete jada. Ondo-ondo pasatu eguna eta mila patxo etxeko danon eta, bereziki, zure anaia Enaitzen partetik! Mua!


# ZORION AGURRAK TELEBISTAN



GOIENA TELEBISTA | KORAPILO
ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## ASTEA GOIENAN



JULIO CALLEJA

### Liderren kontrako partiduen laburpenak

Asteburuan, saskibaloian MUk eta eskubaloian Izarraitz Aloña Mendik liderren kontrako partiduak izango dituzte. Horien laburpenak ikusi ahal izango dira *Harmailatik*–en. Baita futbolean Bergarak Soraluzeren aurka jokatuko duen partidua ere.

**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00



JAGOBA DOMINGO

### Itzuli da 'Debagoiena zuzenean' saioa

Gabonetako oporren ostean, ohiko programaziora itzuli da Goiena telebista. Besteak beste, bailaran gertatzen diren kontuen gaineko erreportajeak eskaintzen jarraituko du *Debagoiena zuzenean* saioaren bitartez, Txomin Madinaren gidaritzapean.

**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 8**

**12:00** Debagioena zuzenean
**12:30** EKT
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Hurbilean
**14:30** Berriak
**15:00** EKT
**15:30** Onein
**16:00** Debagioena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Lurrean bizi
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Zaindu zaitez
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagioena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagioena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagioena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagioena zuzenean
**01:30** Berriak

**ZAPATUA, 9**

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagioena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** Ertzak
**12:30** Harmailatik
**12:55** Ikuskizuna: Aba Taano
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Muga barik
**15:00** Debagioena zuzenean
**16:00** Debagioena zuzenean
**16:05** Lurrean bizi
**16:30** Ikuskizuna: Ipuin kontalariak
**17:00** Korapilo
**17:30** Kantari
**18:00** Harmailatik
**18:30** Hurbilean
**19:00** Debagioena zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:05** Muga barik
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Lurrean bizi
**21:30** Harmailatik
**22:00** Debagioena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:05** Ikuskizuna: Aba Taano
**00:10** Muga barik
**00:40** Amaia DJ
**01:10** Debagioena zuzenean
**02:15** Astea iruditan
**02:20** Artekale
**03:20** Amaia DJ
**03:50** Astea iruditan

**DOMEKA, 10**

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:20** Astea iruditan
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Ikuskizuna: Ipuin kontalariak
**12:30** Ertzak
**13:00** Debagioena zuzenean
**14:00** Astea iruditan
**14:05** Hurbilean
**14:30** Ikuskizuna: Aba Taano
**15:30** Muga barik
**16:00** Debagioena zuzenean
**17:00** Astea iruditan
**17:00** Korapilo
**17:30** Kantari
**18:00** Zaindu zaitez
**18:30** Muga barik
**19:00** Ikuskizuna: Jentil gaua
**20:00** Harmailatik
**20:30** Debagioena zuzenean
**21:30** Astea iruditan
**21:35** Lurrean bizi
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Tobera herri-antzerkia
**23:30** Debagioena zuzenean
**00:30** Astea iruditan
**00:35** Harmailatik

**ASTELEHENA, 11**

**12:00** Debagioena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagioena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagioena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Lurrean bizi
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagioena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagioena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagioena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagioena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harmailatik

**MARTITZENA, 12**

**12:00** Debagioena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Ikusi irratia
**14:00** Debagioena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagioena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Ikuskizuna: Ipuin kontalariak
**18:00** Ertzak
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Kantari
**20:00** Debagioena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagioena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Muga barik
**22:30** Debagioena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:30** Debagioena zuzenean
**01:00** Berriak
**01:30** Muga barik

**EGUAZTENA, 13**

**12:00** Debagioena zuzenean
**12:30** Muga barik
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Muga barik
**15:30** Onein
**16:00** Debagioena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Zaindu zaitez
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Muga barik
**20:00** Debagioena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagioena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Kaskarotenea: Debagoinetik elkartasuna
**22:30** Debagioena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Muga barik
**00:00** Debagioena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUENA, 14**

**12:00** Debagioena zuzenean
**12:30** Kaskarotenea: Debagoinetik elkartasuna
**13:00** Artekale
**14:00** Debagioena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zaindu zaitez
**15:30** Onein
**16:00** Debagioena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Artekale
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Kantari
**20:00** Debagioena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagioena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** EKT
**22:30** Debagioena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Kaskarotenea: Debagoinetik elkartasuna
**00:30** Debagioena zuzenean
**01:00** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Baserritarren eta zuhaitzen azoka berbetagai izango da

Ohiko programaziora itzuliko da astelehenean 107.7a eta 10:00etan zuzeneko *Igo autobusera!* irratsaioa eskainiko da. Lehenengo gonbidatuak Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendia eta Ingurumen teknikari Pello Garai izango dira. Hilaren 16ko azokaz jardungo dute.

### Sarrerak eta liburua zozketatuko dira datorren astean

Egubakoitzeko zozketan, Arrasateko Vene Herreroren *Jose Estruch: el teatro como nexo identitario* liburua zozketatuko da. Liburua irabazi nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora, edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera. Animatu, parte hartu eta zorte on, entzule!

## EZKONTZAK



### Sonia eta Juanma

Zorionak, Sonia eta Juanma! Abenduaren 19an egun zoragarria pasatu genuen. Asko disfrutatu Japonian! Goup Strip Girls.



### Alba eta Dabid

"Ordua zan! Bizitza osuan elkarrekin ibili ostien, azkenien, Eskoriatzako Alba eta Markinako Dabid zapatu honetan, urtarrilaren 9an, ezkonduko die Durangoko udaletxien. Zorionak eta pozik bizi, kuadrillakuen partetik!".

## HILDAKOAK

**Jose Caballo Delgado.** Arrasaten, abenduaren 16an. 64 urte.
**Arantxa Gallastegi Arregi.** Arrasaten, abenduaren 17an. 88 urte.
**Gloria Urrezola Etxeberria.** Oñatin, abenduaren 18an. 97 urte.
**Maria Moreno Rubio.** Bergaran, abenduaren 18an. 87 urte.
**Jose Francisco Gallastegi Lejarreta.** Arrasaten, abenduaren 18an. 75 urte.
**Eleuterio Santander Quesada.** Arrasaten, abenduaren 18an. 91 urte.
**Jose Ramon Rodriguez Perez.** Aretxabaletan, abenduaren 19an. 75 urte.
**M. Dolores Garmendia Aduriz.** Arrasaten, abenduaren 19an. 71 urte.
**Maria Luisa Gallastegi Garai.** Arrasaten, abenduaren 20an. 84 urte.
**Baltasara Alonso Fernandez.** Arrasaten, abenduaren 20an. 90 urte.
**Baltasara Gonzalez Ramos.** Arrasaten, abenduaren 24an. 83 urte.
**Benita Atorrasagasti Narbaiza.** Arrasaten, abenduaren 27an. 88 urte.
**M. Resurreccion Sanz de la Cuesta Moreno.** Arrasaten, abenduaren 28an. 73 urte.
**Francisco Jimenez Ruiz.** Arrasaten, abenduaren 28an. 87 urte.
**Juan Jose Exposito Garcia.** Bergaran, abenduaren 28an. 84 urte.
**Manuel Tejada Martin.** Bergaran, abenduaren 29an. 54 urte.
**Rosario Ezkurra Larrañaga.** Arrasaten, abenduaren 29an. 97 urte.
**Eugenio Bengoa Ruiz de Arbulu.** Bergaran, abenduaren 30ean. 89 urte.
**Nieves Uriarte Igartua.** Bergaran, urtarrilaren 1ean. 73 urte.
**Manuel Arregi Irastorza.** Bergaran, urtarrilaren 1ean, 73 urte.
**Maria Agirre Zarraoa.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean.
**Eladio Canelo Ibañez.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean.
**Fernando Iglesias Martinez.** Aretxabaletan, urtarrilaren 1ean, 80 urte.
**Antonia Jonsonsoro Arruti.** Aretxabaletan, urtarrilaren 1ean. 94 urte.
**M. Consuelo Trillo Rodeiro.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 57 urte.
**Geminiano Manchado Diez.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 78 urte.
**Angel Cruz Odriozola Odriozola.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 79 urte.
**Jose Luis Arruabarrena Lazkano.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 86 urte.
**Carlos Otaño Martinez de Ibarreta.** Bergaran, urtarrilaren 2an. 80 urte.
**Remedios Candelario Adama.** Arrasaten, urtarrilaren 3an. 90 urte.
**Concepcion Carrasco Tello.** Arrasaten, urtarrilaren 4an. 82 urte.
**Ines Malbadi Olano.** Oñatin, urtarrilaren 4an. 85 urte

**ESKER ONA**

## Jose Ramon Rodriguez Perez



2015eko abenduaren 19an hil zen, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Gure bihotzean betirako.*

**Aretxabaletan, 2016ko urtarrilaren 8an.**

**URTEURRENA**

## Jose Iturbe Arenaza



2015eko urtarrilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

OROIGARRIA

## Eladio Canelo Ibañez



2016ko urtarrilaren 1ean hil zen.

*Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

**Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

OROIGARRIA

## Maria Agirre Zarraoa

2016ko urtarrilaren 1ean hil zen.

*Gogoan, zure oroitzapen goxoak,*
*bihotzean, zure maitasunaren beroak*
*eta ariman, zure argiaren distirak*
*betirako dirau.*

**Isi, Mari, Marijo, Miren Maite, Nerea.**
**Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

OROIGARRIA

## Maria Agirre Zarraoa

2016ko urtarrilaren 1ean hil zen.

*Zure hutsuneak utzitako itzalari,*
*oroitzapen alaien indarraren argia,*
*eta bihotzeko minaren hotzari,*
*gure besarkada goxoen beroa.*

**Agustin, Alaitz, Irati, Ixone, Marijo, Maite eta Miren Maite.**
**Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

OROIGARRIA

## Manuel Tejada Martin



2015eko abenduaren 29an hil zen.

*Eskerrak ematen dizkizugu soilik,*
*zu ezagutu izanagatik,*
*eta izan duzun bizitza hau,*
*zurekin konpartitzen uzteagatik.*

**Dolores eta Aitor.**
**Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

OROIGARRIA



## Manuel Tejada Martin



2015eko abenduaren 29an hil zen, 54 urte zituela.

*Ostadar ederrean zabiltza aitxitxa*
*neri begira zaindari.*
*Nik laztantxo bat bidaliko dizut*
*egunero zuri.*

**Julen.**
**Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

ESKER ONA

## Manuel Tejada Martin



2015eko abenduaren 29an hil zen, 54 urte zituela.

Hitzez eta bihotzez eskerrik beroenak abenduaren 30ean
gure ondoan egon zineten guztioi.
Hainbeste maitasun adierazteagatik eta gu zuengatik
hain babestuak sentiarazteagatik.
Eskerrik asko, bene-benetan, familiaren izenean.

**Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

ESKER ONA

## Manuel Arregui Irastorza



2016ko urtarrilaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

*Nola zu ahaztu, egunek aurrera egin arren.*
*Nola zu agurtu, zure begien xarma itzali ezean.*
*Oraindik sentitu baitezakegu zure argia, gure bihotzean dirdira eginaz.*
Zure familiak

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

**Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

ESKER ONA

## Arantxa Gallastegi Arregi



(Tomas Iribecamposen alarguna)

Arrasaten hil zen 2015eko abenduaren 17an, 88 urte zituela.

*Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.*
*Emakume, alaba, ahizpa, emazte, koinata,*
*ama, amama, izeba eta lagun paregabea izan zara.*
*Gure artean dirauzu bizirik eta eredu.*
*Beti arte, Intxaustiko dama!*

*Intxaustiko sukaldean bildu garen guztion*
*maitasuna eta muxuak bueltan.*

Eskerrik asko Arantxari agur
esateko orduan, mila modutan,
zuen berotasuna eskaini eta
adierazi diguzuen guztioi.

**Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

ESKER ONA

## Jose Luis Aguirregomezcorta Arregui



2016eko urtarrilaren 5ean hil zen, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

ESKER ONA

## Fernando Iglesias Martinez



2016ko urtarrilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela.

*Sentimendu bat soilik da pena*
*pozak mendean daukana,*
*zoragarria izan delako*
*zu ezagutu izana.*

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna
adierazi diguzuen guztiei, etxekoen izenean.

**Aretxabaletan, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

URTEURRENA

## Jesus Mari Aristi Agirre

Elizondon hil zen 2015eko urtarrilaren 6an, 80 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 10ean,
11:00etan, Antzuolako Errukizko amaren parrokian.

—

*Beti izango zaitugu gogoan.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Antzuolan, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

---

URTEURRENA

## Iñaki Arregi Iñarra



2015eko urtarrilaren 11n hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urtarrilaren 10ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

URTEURRENA

## Ciriaca Larrañaga Larrañaga



2015eko urtarrilaren 10ean hil zen, 97 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urtarrilaren 10ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2016ko urtarrilaren 8an.**

---

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**El puente de los espias**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Los cinco y el secreto de la piramide**
Zapatua: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**45 años**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Koko dragoi txikia**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Truman**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Joy**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El desafio**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Macbeth**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Domeka: 20:30.

**ANTZOKIA**

**El secreto de Amila**
Zapatua: 17:00.

**Joy**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Olentzero eta Amilaren sekretua (euskaraz)**
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Joy**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Sufragistas**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Legend**
Zapatua eta domeka: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Star Wars: el despertar de la fuerza**
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 19:45, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00.

**Star Wars: el despertar de la fuerza 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 21:00.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 20:20, 22:00.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Incidencias**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.

**Point Break**
Zapatua: 22:20, 00:40.
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 20:00, 22:20.

**Steve Jobs**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**El desafio**
Egubakoitzetik domekara: 17:35, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Padres por desigual**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**El puente de los espias**
Egubakoitzetik domekara: 22:15.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 22:15.

**Carlitos y Snoopy**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Zapatua: 20:00.

**Ocho apellidos catalanes**
Zapatua eta domeka: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:10, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:40.

**Los juegos del hambre: Sinsajo**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 15:50.

**Hotel Transilvania 2**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**FLORIDA**

**Carlitos y Snoopy**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:25.

**El desafio**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**El viaje de Arlo**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:30.

**El puente de los espias**
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

**Incidencias**
Egubakoitzetik domekara: 16:25.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Legend**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Macbeth**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00.

**Ocho apellidos catalanes**
Egubakoitzetik astelehenera eta eguaztena: 20:00.

**Padres por desigual**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**Point break**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Star Wars: el despertar de la fuerza**
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Steve Jobs**
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Sufragistas**
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Hotel Transilvania 2**
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

**Joy**
Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:00.

## KRITIKA



**45 AÑOS** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Andrew Haig.
**Herrialdea:** Erresuma Batua.
**Aktoreak:** Charlotte Rampling, Tom Courtenay, Geraldine James.

# Zalantzaren itzala

Katek eta Geoffek 45 urte daramate ezkonduta, eta ospakizun festa egitea erabaki dute. Harreman sendoa dutela dirudi. Baina, bat-batean, espero ez duten berri bat jasoko dute. Geoffek Kate ezagutu baino lehen beste bikotekide bat izan zuen. Suitzako Alpeetan zeudela neskak istripu bat izan eta hil egin zen. Orain, izotzak irentsitako gorpua berreskuratzeko aukera dute, eta egoera horrek ahaztutako istorioa biziberrituko du. Katek gertatutakoa ezagutu arren, 45 urtetan ez dute gaiaz gehiegi berba egin. Berriak bikotearen bizitza astinduko du. Geoffek jasaten duen kolpe emozionala latza da. Iraganaren mamuek eta oroimenek bizia hartzen dute. Dena den, istorioaren protagonista nagusia Kate da. Bere bizitzak orekatua ematen zuen. Hainbeste urte elkarrekin pasa ostean, euren harremana nahiko harmonikoa dirudi. Urteekin harremanak aldatzen joaten dira eta bikotearen arteko pasioa aldatzen eta baretzen da. Baina, elkarrekin izandako bizitza ona izan dela dirudi. Dena gertu dute ospakizun berezia egiteko, baina zalantzen itzalak azaldu egin dira. Elkarrekin jarraitu duten bizitza zoriontsua izateko edo bizirik mantendu galdutako neskaren oroimena? Agian, euren arteko harreman orekatuan benetako maitasun sentimenduak falta izan zaizkie?

Galdera horiek Kateren buruan izango duten eragina ikusiko dugu pelikulan. *45 años* filmean ez dira gauza gehiegi gertatzen. Film kadentziala da. Pintzelkadaka pertsonaia jasaten ari den zurrunbilo emozionala ezagutuko dugu. Elkarrekin izandako bizitza momentu baten zalantzan jarriko da. Sentimendu horiek aditzera ematea lan erraza ez bada ere, zuzendariak, Charlotte Ramplingen eta Tom Courtenaynen lan zoragarriarekin lagunduta, pertsonaien odisea sentikorra islatzen du.

ANTONIO ZABALA



DENAFLOWS.COM

**OÑATI Joseba Irazoki eta Lagunak taldearen kontzertua**
Joseba Irazokik Felix Buff bateria jotzailearen, Ager Insuntza gitarrista eta biolin jotzailearen eta Jaime Nieto baxu jotzailearen laguntza izango du oholtzan. *Katakun* diskoa aurkeztuko dute zuzenekoan. Sarrera, zehazteko.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

## MUSIKA

**OÑATI Iker Martinez**
Bertsioak izango dira nagusi Lenao taldeko bateria-jotzailearen eta abeslariaren emanaldian. Aurretik, Latzen, Potemkin eta Amonal taldeetan ibilitakoa da oñatiarra. Doako saioa.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

## ANTZERKIA

**OÑATI Aurkezpen gala**
Irazan Antzerki Guneak ekitaldi berezia egingo du: *Bat edo Bip* delakoa. Hiru hilabeteren ostean, jendaurreko lehen saioa egingo dute. Inprobisazio gala izango da. Dinamikoa eta sorpresaz betea. Sarrerak, leihatilan salgai.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

**OÑATI Irrien Lagunen saioa**
Laugarren urtez bisita egingo dute Antixenera. Tiritatxok eta Martinbertsok *Euskararen taupadak* delako ikuskizuna egingo dute. Sarrerak salgai daude Kikun eta gaztelekuan.
Etzi, domeka, gaztetxean, 17:00etan.

**ARRASATE 'Zergatik Jamil?'**
Tartean Teatroaren azken lana. Kolpe baten ondorioz memoria galdu duen gizona. Dakien bakarra da ohean zegoen elbarri babesgabe bat tiroz hil duela. Patxo Telleriak zuzendutako lana da eta protagonistak Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy dira.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Beart elkartekoen lanak**
Simon Arrietaren omenezko erakusketa ipini dute Bergarako artistek. Martitzenetik domekara arte zabalik.
Domekara arte, Aroztegin.

**ARETXABALETA 'Batu taupadara'**
Argazki erakusketa ipini du Mundukidek. Domeketan eta jaiegunetan itxita egongo da.
Urtarrilaren 17ra arte, Arkupen.

**BERGARA 'Paisaia astronomikoak'**
Suxe Santinek argazki erakusketa ipini du. Leku publikoetan dauden eraikin erraldoiak eta "astronomikoak" ditu oinarri.
Urtarrilaren bukaera arte, Kajoi tabernan.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak, eta burdinak Arrasaten izandako eragina hizpide dituen erakusketa iraunkorra.
Harresi aretoan ikusgai.

## HITZALDIAK

**ELGETA 'Hileroko kopa'**
Hilerokoan erabiltzeko sistema berria, Finlandian egindakoa. Tanpoiak eta konpresak ez erabiltzeko aukera. Ingurumenarekin jasangarria eta merkea. Horren gainean jardungo dute.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00etan.

**DEBAGOIENA Haurren emozioei buruz berbetan**
Rafael Cristobal mediku eta irakaslea lau galdera nagusiri erantzuten saiatuko da: *Zer dira emozioak? Hezi egiten dira? Kontrolatu egiten dira? Zergatik dituzte haur batzuk neurri gabeko emozioak?* Lehen Hezkuntzako haurren gurasoendako berbaldia da.
Gaur, egubakoitza, Aranzadiko areto nagusian, 18:30ean.

**OÑATI 'Umearekin denbora: kantitatea ala kalitatea?'**
Nerea Mendizabal psikopedagogoak egingo du berba. Hitzaldi irekia gurasoendako eta herritarrendako. Hitzaldia dagoen bitartean, haurtzaindegi zerbitzua egongo da.
Urtarrilaren 13an, ikastolan, 18:00etan.

**ARETXABALETA 'Kapulana bat zintzilik'**
Kapulanak Mozambikeko emakumeen oihal koloretsuak dira; soineko moduan, haurrei lepoan eusteko, jana biltzeko edota etxeak apaintzeko baliatzen dituzte. Edozer aurki daiteke zapi handien estalpean. Emanaldi honetan Kapulana bat zabalduko du Miren Amurizak.
Urtarrilaren 13an, liburutegian, 19:00etan.

**ANTZUOLA 'Hauteskundeen ondoren, Euskadin zer?'**
Emilio Olabarria jeltzaleak egingo du berba hauteskunde ondorengo egoeraz. Gazteleraz egingo

**BERGARA 'Kontukantari'**
La Ressistens eta La Enana Naranja taldeen antzerki eta kanta emanaldia. Oroimenean dauden kantuak rap, blues eta reggae erritmoetara egokituko dituzte Sandrak eta Botik, txotxongiloen laguntzarekin. Euskarazko hamar haur-kanturen kontzertua egingo dute. Sarrerak, leihatilan, lau eurotan.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.


GOIENA


MARGARITOYCIA.ES

**ANTZUOLA 'Klown' ikuskizuna**
Margarito y Compañia taldeak umeendako emanaldia egingo du. 3015. urtean kokatzen da ikuskizuna. Margaret Querida komandantea da protagonista. Gizakiek denbora galtzeko duten joeraren gainean jardungo du umeekin.
Etzi, domeka, Torresoroan, 18:00etan.

# NON-ZER

URTARRILA 9
URTARRILA 14

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

du berba. Zazpi legealdi egin ditu Madrilen Arabako EAJren diputatu eta ondo ezagutzen ditu Parlamentua, parlamentariak eta han hartzen diren erabakien gainekoak.
Urtarrilaren 14an, Olaranen, 18:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**BERGARA 'Urzulo'**
Aloña Mendi Espeleologia Taldekoen dokumentala emango dute Bergarako Mendi Astea hasteko. Pol-Pol mendizale taldeak, Gorla Alpino taldeak eta Bergarako eskalatzaileek antolatu dute.
Urtarrilaren 11n, Irizarren, 19:00etan.

**BERGARA 'Pioletak dantzan'**
Iñigo Andolaren emanaldia izango da Mendi Astearen bigarrena. Eskalatzaileak Pirinioetan igotako hainbat mendiren eta hormaren inguruan egingo du berba.
Urtarrilaren 12an, Irizarren, 19:00etan.

**BERGARA 'Aztarnak'**
Maite Maiora korrikalariaren emanaldia.
Urtarrilaren 13an, Irizarren, 19:00etan.

**OÑATI 'Euskal Herriaren ABDak'**
Euskal Herriko 25 zuzendarik egindako film bateratua. Beldurrezko, zientzia fikziozko eta fantasiazko film laburrez osatutakoa.
Urtarrilaren 15ean, Antixenan.

## DEIA

**OÑATI Zikloturista lizentzia**
Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren bidez egin daitezke 2016rako lizentziak egoitzaren bulegoan, hilaren 15era arte –9an, 10ean eta 11n itxita egongo da–, 19:00etatik 20:00etara arte.
Aipatutako lekuan, egunetan eta orduetan.

**ELGETA Mendi federatu txartela**
Kantsatzeke mendi taldeak bazkide eta federatu txartelak egiteko kanpaina zabaldu du. Urtarrileko martitzenetan egongo dira kultura etxeko bigarren solairuan, 19:00etatik 20:00etara arte.
Aipatutako lekuan, egunetan eta orduetan.

## IRTEEERAK

**OÑATI Zubillagan hasi eta bukatu**
Aloña Mendiko mendi sailak zehaztu du 2016ko irteeren egutegia. Lehena hilaren 17an egingo dute: Zubillaga-Kortaburu-Kurtzetxiki-Bedoña-Larriño-Zubillaga ibilbidea, hain justu ere. Izenak aldez aurretik eman behar dira egoitzan.
Izen-ematea aipatutako lekuan.

**ARRASATE Formigalera eskiatzera**
Aste bukaerako irteera egingo du Besaidek hilaren 23tik 24ra, betiere, elurraren egoeraren arabera. Astelehenak, martitzenak eta eguaztenak dira izena emateko egunak: Besaiderен egoitzan, 18:30etik 19:30era arte.
Aipatutako lekuan, egunetan eta orduetan.

**ARRASATE Mendi irteera eta sagardotegia**
Santiago bidearen lehen etapa, Hondarribia-Donostia, egingo dute lehenik, eta, ostean, Intxaurrondo sagardotegian bazkalduko dute. Izen-emateak martitzenetan eta eguaztenetan, Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era.
Irteera, urtarrilaren 31n.

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu eskolak martitzenetan (17:30 eta 20:00) eta eguenetan (17:30). Interesatuek 616 96 57 95 telefonora deitu beharko dute.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARRASATE Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu nagusiendako eskolak astelehenetan eta eguaztenetan (16:45). Interesatuek 616 96 57 95 telefonora deitu beharko dute.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**OÑATI Elurrari buruzko ikastaroa**
Elurraren egoera nolakoa den, ze arrisku dituen eta zer neurri har daitezkeen aztertzen eta azaltzen du *Nivologia* delakoak. Horren gaineko bi orduko ikastaroa egingo dute Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik, otsailaren 5ean eta 6an. Gainera, Gabarditon saio praktikoa egingo dute aste bukaera berean. Izen-ematea eta informazioa Aloñaren egoitzan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

**DEBAGOIENA Mendiko eskia**
Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko eskiaren gaineko hasiberriendako eta hobekuntza ikastaroak egingo ditu urtarrilaren 23an eta 24an, Astunen. Federatuek 140 euro ordaindu beharko dute eta federatu ez direnek 166 euro. Izena emateko eta informazioa jasotzeko: *www.gmf-fgm.org* helbidea.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

## OHARRA

**ANTZUOLA Loteria kobratzeko**
Landatxopen saldutako 94.010 zenbakiaren partizipazioek bost euroko saria jaso dute. Gabonetako loteriarен txartelak dituztenek erretiratuen egoitzan kobratu beharko dute saria urtarrilaren 11n edo 25ean, 17:00etatik 18:00etara arte.
Landatxopen, aipatutako egunetan eta orduetan.


# Goiena Klubeko urtarrileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**




**10,1 hazbeteko tableta** Parte hartzeko sariaren izena: Tableta




**Azken Txorakeriak (3 liburu)**
**Kike Amunarrizen azken liburua**
Parte hartzeko sariaren izena: KikeAmunarriz


ARRIKRUTZ

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobetarako sarrerak**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz


www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuak**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

**PARTE HARTZEKO:**
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. **Hartu parte eta... on egin!**



Dukiena jatetxeko buztana saltsan.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba“



BUKATZEKO

# Debagoiendarrak ere bai selekzioan

▶ Ramon Azkarate arrasatearra Euskadiko Selekzioko ordezkaria da azken hiru urteotan

▶ Iker Egaña oñatiarrak prestatzaile fisiko lanak egiten ditu eta Imanol Etxebarriak, atezainak gertatu

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

Asko dira urtero-urtero Gabonekin batera Euskadiko Selekzioak jokatuko duen partiduaren zain egoten direnak. Aurten kanpoan, Katalunian, izan dira partiduok, neskena zein mutilena, eta telebista bidez ikusi eta gozatu dituzte gehienek. Partiduan bertan, baina, izan zen debagoiendarrik –Mikel Gonzalezek ezin izan zuen jokatu, min hartuta zegoelako–: Ramon Azkarate eta Imanol Etxeberria arrasatearrak eta Iker Egaña oñatiarra.




Egaña –kartelari helduta–, gainean Azkarate eta eskuman –azkenaurrekoa– Etxeberria. | EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA

### Hainbat eratako lanak

Mondrako zuzendaritzan dago Azkarate, eta Gipuzkoako eta Euskadiko Futbol Zuzendaritzako kidea ere bada: zortzi urte daramatza Gipuzkoakoan eta lau Euskadikoan; eta azken hiru urteotan ordezkari lanak egiten ditu Euskadiko Selekzioan. "Oso gustura nabil, eta lagunak ere egiten dira", dio. Hainbat eratako ardurak ditu: ertzainekin batzarrak egin jokalarien aireporturako joan-etorriak antolatzeko; hoteleko logelak banatu; garajeetako aparkalekuak banatu; jokatuko duten jokalarien zerrendak banatu; jokatu ostean partiduko bideoa banatu jokalarien iritziak jasotzeko... "Kirol kontu-rik bat ere ez, jokalariei lagundu eta kontuak erraztu bakarrik".

Selekzioko teknikarien taldean, ostera, beste bi debagoiendar daude: Iker Egaña oñatiarra prestatzaile fisikoa da eta Imanol Etxebarria arrasatearrak atezainak entrenatzen jarduten du.

### Jokatzeko "gogotsu"

Azkaratek dio jokalariak "gogotsu" egoten direla urtean behin izaten den partidu hori jokatzeko: "Ez daukate inolako beharrik, ez dute kobratzen, eta izugarrizko ilusioarekin etortzen dira urtero. Deitu ezean haserretu ere egingo lirateke hainbat, konpromiso handia dutelako hiru koloredun kamisetarekin".

Emakumezkoen taldeak ere gero eta indar handiagoa hartu du. "Talde benetan polita da; Estonian ere egon dira aurten, eta ondo dabiltza", dio, eta gaineratu du: "Horiek bakarrik ez, 16 eta 18 urtez azpiko taldeek ere emaitza benetan garrantzitsuak lortu dituzte".

Partidu gehiago jokatu gurako lukete, baina ez dela hain samurra dio: "Batetik, aurkaria behar duzu –batzuek aurrekontu handia dute–; eta bestetik, data zehatzetan jardun behar da: oporrak... Beti taldeen baimenarekin, noski. Aurten, lehiaketa bukatutakoan, beste partiduren bat jokatzea da asmoa, baina ezer ez dago zehaztuta". Eta ofizialtasuna noizko? "Hori ez da gure kontua, politikariena baizik. Guk eskatzen jarraituko dugu", adierazi du.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



## Joandakoak oroi

Urte berri honen nire lehen oroitzapena ez da izan urte berriaren proiektu, desio eta nahientzat, horiek pixka bat beranduago lekua izan badute ere.

Lehena, joandakoen hutsuneak uzten duen tristura, nahigabea eta bihotz minarenarentzat izan da. 2015ean zahar eta gazte asko, gehiegi, joan dira eztusean, familiakoak ez, baina lagun asko. Bakoitzak bere etxekoen hutsunea izango du, bete ezinezko hutsunea, eta norberaren bizimodua ez da bera izango sekula, neronek bai baitaukat esperientzia hori nirean.

Baina aurrera egiteko arrazoi asko ditugu inguruan, eta bide berriari ekitea ezinbestekoa da.

Arrate Bengoa eta Espe Ugarte, bizitzaz beterik zeuden emakume gazteak parean joan ziren, kolpe handia gure ingurukoentzat eta bergarar askorentzat, Gurutz Jausoro oñatiarra, lagun eta abertzale fina, musu bat. Istripuz, gaixorik edo bestela hildako guztien familiarteko eta lagunei oroitzapen hau bidali nahi diet, ez nahigabean murgiltzeko, baizik eta urte berria joandakoen memoriaren indarraz janzteko. Aitari orain lau urte esan nion bezala, izarretan bazaudete egiguzue keinu, lagun maiteok.

Laboral Kutxa Baskonia – CSKA

partidurako 4 sarrera bikoitz zozketatzen ditugu

**Urtarrilaren 21ean Buesa Arenan jokatuko den partidurako (20:30)**

***Animatu eta parte hartu!***



**PARTE HARTZEKO (URTARRILAREN 15ERA ARTE):**
**WhatsApp:** [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba“
Euskara irabazle, denok irabazle!